de la categoría del suelo no urbanizable, así clasificado por la inconveniencia de su desarrollo, el régimen jurídico restrictivo en materia de reconstrucción de caseríos en dichos suelos así clasificados, y la protección de los denominados núcleos rurales, cuyo suelo se mantiene en la categoría del suelo no urbanizable y cuyos crecimientos se restringen, con el objeto de preservarlos en su carácter histórico y económico, agrario y pecuario. Así mismo, se establecen mayores limitaciones jurídicas para la instalación de viviendas ligadas a explotaciones hortícolas y ganaderas en suelo no urbanizable.

3.- En materia de políticas de fomento para implantación de actividades y usos lucrativos protegidos por la ley:

Las administraciones públicas, especialmente ante el estrepitoso fracaso de la estrategia de liberalización del suelo y el espectacular incremento que ha supuesto en sus precios, han visto comprometida muy seriamente la posibilidad económica de obtener suelo a precios asequibles para realizar políticas de fomento en la implantación de determinados usos lucrativos de interés general, tanto para viviendas sometidas a algún régimen de protección como para el fomento de la primera implantación de actividades económicas de nueva creación amparadas por programas públicos de fomento. En estos momentos las administraciones públicas o sus sociedades de desarrollo se ven obligadas a competir con los agentes privados a los precios del suelo marcados por el libre mercado en el ejercicio de competencias sectoriales de fomento.

Sólo rompiendo radicalmente con las fórmulas heredadas desde el pasado, combatiendo los capitales especulativos y favoreciendo las inversiones productivas puede intentarse atender las necesidades de nuestra sociedad en la demanda de suelo dentro de un marco de desarrollo sostenible. Se hace necesario reconocer que el papel oligopólico reconocido a la propiedad del suelo en el urbanismo, junto con el papel de inhibición desempeñado por las administraciones públicas, son dos factores que requieren así mismo de una urgente revisión.

Hasta el momento, la legislación ha separado, a efectos de su gestión urbanística, los usos lucrativos de los usos públicos y dotacionales en los desarrollos urbanos. De esta forma, la obtención de todos los usos lucrativos correspondía en exclusiva al propietario de los suelos originales, y la administración pública se limitaba a percibir del propietario, libres de cargas, al margen del porcentaje correspondiente a su participación en el ámbito de actuación, los terrenos de uso dotacional y las obras de urbanización con destino ambos al uso de la colectividad, por entender que el interés público se concretaba con carácter exclusivo en dichos suelos.

Ello no obstante, desde la introducción en los planes urbanísticos de una reserva obligatoria de suelo pa-

ofizialeko etxebizitzak eraikitzeke lurzorua derrigorrez gorde behar dela erabaki denetik, ikusi ahal izan da interes publikoa diogunean ez garela soilik aprobetxamendurik gabeko erabileretarako lurzorua edukitzea-ri buruz ari; izan ere, irabazteko asmoa izan eta interes orokorraren mesederako izango diren erabileretarako ere gorde behar baita lurzorua. Kasu honetan, etxebizitza babestutako politikak aurrera eraman ahal izateko lurzoruari buruz ari gara. Ikuspegi hori kontuan izateak hirigintzako edozein ekintza aurrera eramaterakoan interes pribatu eta publikoen artean legitimazio konkurrentea dagoela adierazten du.

Esandako guztiaz gainera, kontuan izan behar da gure Autonomia Erkidegoko biztanle-gune nagusienetan gero eta lurzoru gutxiago dagoela eta hiri-eredua goia jota dagoela, eta horren ondorioz, ezinbestekoa da administrazio publikoek modu aktiboan parte hartzea lurzoru horiek eskuratu, mantendu eta horien hirigintzako garapena bideratzeko, kontuan izan behar baita administrazio publikoek izan beharko dutela udalerrri, eskualde edo lurralde bateko ekonomiaren garapen eramangarria bermatu beharko dutenak.

Egoera zein den oso garbi ikusten denez, tradizio anglosaxoiko hirigintzako ereduari jarraituz, legeak administrazio publikoen eskuetan utzi du kalifikatutako lurzoru horien jabetza eskuratzeko eta gordetzeko aukera, lege honetan babestutakotzat jotako erabilerak aurrera eramateko. Lurzorua eskuratzeko modu hori dotazioen bidetik gauzatu da, eta, beraz, hirigintzaren antolamenduan babestutako etxebizitzak egiteko kalifikatuta dauden lurzoruen lurrazal-eskubidea administrazioari dohainik lagatzea dakar horrek. Ondorioz, lurzoru horiek araubide juridiko ezberdina izango dute, emango zaien erabileraren ezaugarrien arabera. Halaber, helburu berarekin, aukera ematen da partaidetza publikorik handiena izateko birpartzelazio-prozesuetan, birpartzelazioa nahitaezko bihurturik eta, beraz, lurzorua- ren jabeei inposaturik.

4.- Hiriak eta herriak biziberritzeko eta berronertzeko politikari dagokienez:

Eusko Jaurlaritzak arlo honetan dituen politika eta programen ildotik, kontuan izanda arreta eta laguntza berezia eskaini behar zaiela bereizketa positiboko neurrien bidez, legeak hirigintzaren kudeaketan laguntzeko tresna batzuk zehaztu ditu, administrazio publikoen jarduna eraginkorra izatea ahalbidetzeko.

Era horretan jardunda, finantza arloko laguntza emateaz gainera, lege honen bidez administrazio publikoek beste tresna batzuk ere emango zaizkie, hirigintzako jarduerak kudeatzerakoan eraginkortasun handiagoa lortzeko. Tresna horien artean, azpimarratzekoa da administrazio publikoek lehentasunez erosteko eskubidea izango dutela auzo edo gune jakin batzuetan, hirigintzako plangintzako aurreikuspen jakin batzuk egikari-

ra la construcción de viviendas de protección oficial en determinados municipios de la Comunidad Autónoma del País Vasco, se ha venido constatando que el interés público excede de la exclusiva obtención de los suelos de uso no lucrativo, concretándose también dicho interés en la obtención de determinados suelos para la implantación de usos de carácter lucrativo y al servicio del interés general. En este caso hablamos de suelos para la realización de políticas de fomento en materia de vivienda protegida. Esta consideración determina que sobre cualquier desarrollo urbanístico exista entonces una legitimación concurrente entre los intereses privados y los públicos.

A todo ello hay que añadir que el agotamiento del suelo y la colmatación de los modelos urbanos en los principales núcleos de población de nuestro país hacen imprescindible que las administraciones públicas —actuando estas como garantes del desarrollo económico sostenible y sostenido de un determinado municipio, comarca o territorio— se impliquen activamente en la obtención, mantenimiento y desarrollo urbanístico de dichos suelos.

Plenamente consciente de esta situación, y siguiendo el modelo urbanístico de tradición anglosajona, la ley establece la posibilidad para las administraciones públicas de obtener y preservar la titularidad dominical de dichos suelos calificados para la implantación de usos declarados protegidos por esta ley. Dicha obtención se articula a través de la consideración dotacional, y por tanto de cesión gratuita a favor de la Administración, del derecho superficiante de los suelos y parcelas destinados a la implantación de vivienda protegida así calificados por la ordenación urbanística, sometiendo estos suelos a un régimen jurídico diferenciado en función de la especificidad de su destino. Así mismo, con este mismo fin, se habilita la mayor participación pública en los procesos de reparcelación sobre la base de su configuración forzosa e impuesta, por tanto, a los propietarios de suelo.

4.- En materia de políticas de rehabilitación y regeneración urbana:

En línea con las diferentes políticas y programas del Gobierno Vasco en esta materia, que reclaman una atención específica para estas zonas necesitadas de especial de apoyo y de medidas de discriminación positiva, la ley incorpora una serie de instrumentos de gestión urbanística para posibilitar la acción eficaz de las administraciones públicas.

De esta forma, al apoyo financiero se le suma la dotación a las administraciones públicas de instrumentos para obtener más eficacia en la gestión de estas intervenciones urbanísticas. Entre ellos destaca la habilitación a las administraciones públicas de un derecho preferencial de tanteo para la ejecución de las previsiones del planeamiento urbanístico sobre determinados barrios o zonas con objeto de fomentar su rehabilitación

tu ahal izateko, betiere auzo edo gune horiek leheneratu edo berroneratu nahi badira; horrekin batera, hirilurzoruan egikaritze-unitateak modu autonomoan mugatzeko bide tradizionala modu malguagoan erabiltzeko aukera ere eskaintzen da.

## III

Lege honen bidez lortu nahi diren helburuak, gora-goa aipatutakoez gainera, ondorengoak ere badira, labur esanda:

1.– Hirigintzako jardueretan arlo publikoak izan beharreko ekimena berreskuratzea, batez ere udalen ekimenaren bidez. Hirigintza, hain zuzen, interes orokorraren alde diharduen funtzio publikoa izango da, eta ez «hirigintzaren arloan sortzen diren gainbalioak esku pribatuak lortzeko bidea». Horretarako, administrazio publikoen eskuetan dauden tresnak sendotu egin dira, ekimen pribatuak hirigintzaren antolamenduan eta egikaritzean egiten duena kontrolatzeko. Esandakoa lortzeko, batez ere urbanizatzeko jarduketa-programak eta eraikitzeo programak aurreikusitakoak dira legean.

2.– Ondasun higiezinekin zerikusia duten jarduera espekulatuak debekatzea, ondorengo xedapenen bidez:

a) Hirigintzako antolamendua kudeatzean malgutasunez aritzea. Antolamendu xehatua eta egiturazko antolamendua kontzeptuak bereizi egin dira behin betiko, horiek jasotzen dituen dokumentua dena delakoa izanik ere, eta horren bidez, hirigintzako plangintzako agiri horiek kudeatzeko modua hobetu nahi da. Udalen eskumenak areagotu egin dira; horri esker, kasu askotan agiriak berriz ere foru-aldundietara bidali behar izatea saihestu da, eta horrek dokumentuak izapidetzeko epeak gehiago ez luzatzea ekarri du.

b) Hirigintzan kudeatu eta egikaritzeko dauden tresnak efektiboak izatea. Hirigintzako antolamendua, hain zuzen, espazioa antolatzeo bidea izango da, orain arte gertatu izan den moduan, baina horrekin batera, hartutako erabakiak egikaritzeko dagoen denbora eta epeak ere antolatuko dira. Egikaritzeko dauden epe horiek betetzea –bai urbanizatzeko lanak egitean bai eraikuntzakoak egitean– interes publikoko osagai bihurtu dira, eta horren eraginean geratuko da hirigintzako antolamendua osoa. Horrela jardunda, interes pribatuaren monopolioko garapenerako interes publikoaren aurrean amore eman beharra izango du, antolamenduan zehaztuta dauden modu eta epean arabera, eta horri esker eta legeak agintzen duenaren arabera, administrazioak eta beste esku pribatu batzuek esku hartzeko modua izango dute, jabeak zituen eginbehar urbanistiko pribatuak bete ez baldin badira urbanizazio, eraikuntza edo birgaitzearen arloan. Horren ondorioz, urbanizatzeko jarduketa integratuak administrazio publikoaren erantzukizunaren barruan sartu dituzte.

3.– Konstituzioak herritarrei aitortzen dizkien ondorengo eskubideak gauzatzeko direla ziurtatzea: erxe-

o reforma urbana, así como la flexibilidad en el uso de la tradicional figura de la delimitación autónoma de unidades de ejecución en suelo urbano.

## III

Los objetivos que esta ley se propone alcanzar, además de los ya comentados, son esquemáticamente los siguientes:

1.– Recuperación de la iniciativa pública en las actividades urbanísticas, especialmente a través de la iniciativa municipal. El urbanismo se configura como una función pública municipal al servicio del interés general, y no como la «forma de adquisición privada de las plusvalías urbanísticas». Para ello, se refuerzan los instrumentos en manos de las administraciones públicas para el control de la ordenación y de la ejecución urbanística por parte de la iniciativa privada, sobre todo a través de programas de actuación urbanizadora y programas de edificación previstos en la ley.

2.– Interdicción de las prácticas especulativas de carácter inmobiliario a través de las siguientes disposiciones:

a) Flexibilidad en la gestión de la ordenación urbanística. Se separan definitivamente los conceptos de ordenación estructural y ordenación pormenorizada, con independencia del documento en que se encuentren, a los efectos de optimizar la gestión de dichos documentos de planificación urbanística. Por otra parte, se amplía la competencia de los ayuntamientos, evitando en muchos casos reenvíos a las diputaciones forales y el alargamiento de los plazos en la tramitación de documentos.

b) Efectividad de los instrumentos de gestión y ejecución urbanísticos. La ordenación urbanística se conceptúa como la organización del espacio, como ha venido siendo tradicional, a la que se añade la organización también de los tiempos y plazos de ejecución de sus determinaciones. El cumplimiento de dichos plazos de ejecución –tanto de la urbanización como de la edificación– se configura como componente del interés público al que queda sometida toda la ordenación urbanística. Así, el monopolio del interés privado cede ante el interés público de desarrollo de la ordenación en forma y plazo, de manera que se permite el acceso, por ministerio de la ley, de la Administración y de terceros privados para la sustitución del propietario en el caso de incumplimiento de sus obligaciones urbanísticas en materia de urbanización, edificación y rehabilitación. En consecuencia, la Ley configura las actuaciones de urbanización integradas como responsabilidad de las Administraciones Públicas.

3.– Aseguramiento de los derechos constitucionales del ciudadano al acceso a una vivienda digna y adecua-

bizitza duin eta egokia izateko eskubidea, pertsona gisa garatzeko eskubidea, eta bizileku duen hiri- edo herri-ingurunea eta ingurune naturala kalitatezkoa izateko eskubidea.

4.– Administrazio publikoek lurzorua eta higiezin merkatuan esku hartzeko tresna berriak sortu eta erabiltzea. Hori horrela izanik, lehentasunez erosteko eskubideari eta atzera eskuratzeko eskubideari atxikita dauden eremuak arautzeko aukera berreskuratu da, hiri leheneratzeko eta birgaitzeko lanak egin behar direnako eta lorzoruaz osatutako ondare publikoak eratzeko.

Lurzoru-ondare publikoak lehenagotik ere ageri dira gure hirigintzako legerian, hain zuzen ekainaren 29ko 20/1998 Legean, eta orain, sendotu egin da aukera hori, garrantzi berezia hartzeaz gainera, interes orokorreko aprobetxamenduzko erabileretarako lurzorua eskuratzeko sistemari euskarri ekonomikoa eskaintzen baitio.

5.– Hirigintzak garapen eramangarriaren printzipioaren aldeko norabidea hartzea. Eta hori hiri-ereduetan gauzatuko da, ingurumenarekin duten lotura kontuan izanda eta historia, arte eta kulturaren arloko ondarea babesturik.

6.– Herritarrek parte hartzeko duten eskubidea bermatzea, herritarrek parte hartzeko programen figuraren bidez –nahitaezkoak izango dira egitura-antolamenduko planetan– eta Plangintzako Aholku Batzordearen bidez –nahitaezkoa izango da udalerrri batzuetan–. Horrez gainera, hirigintzaren inguruko informazioa jasotzeko duten eskubidea bermatzea, udaleko hirigintza-plangintza lurralde-antolamenduko eta arloko antolamenduko tresnekin koherentea dela ziurtatzearen bidez.

## IV

Legea sei titulutan egituratzen da, ohikoa den lege-ereduarekin bat.

Hala, I. tituluak, zehazki, hirigintzari dagozkion oinarrizko definizioak eta arlo horren araubide osoaren printzipio arautzaileak jorratzen ditu; printzipiook, aldi berean, interpretaziorako irizpide ere izan nahi dute. Tituluen hurrenkera beren interpretazioaren logikaren arabera da, eta ez beste legeria batzuek gai honetan ezarri izan duten ohiko hurrenkeraren arabera.

Arauko I. tituluak legearen printzipio orokorrak ezartzen ditu. Horien artean, jakina, hirigintzaren arloan administrazioak zein partikularrek burutzen duten jardun osoa interes publikoaren mendean jartzea dago. Horretarako, auzi-bidean guztiz kontrolatuko da, ekintza publikoaren bidez (hori ere aitortua izan da), interes hori badagoela; lurzoru eraldatzeko eta erabiltzeko ekintza guztiek ingurumenarekiko eramangarriak izatea bermatuko da eta herritarrek parte hartzea ere bermatuko da.

da, a su desarrollo personal y a la calidad del medio urbano y natural en el que se desenvuelve.

4.– Introducción de nuevos mecanismos de intervención administrativa de las administraciones públicas en el mercado del suelo e inmobiliario. Así, se recupera la regulación de los ámbitos sometidos a los derechos de tanteo y retracto para operaciones de regeneración y rehabilitación urbana y para la constitución de patrimonios públicos de suelo.

La figura de los patrimonios públicos de suelo, ya presentes en nuestra legislación urbanística a través de la Ley 20/1998, de 29 de junio, se consolida al mismo tiempo que adquiere una relevancia especial como soporte económico del sistema de obtención de los suelos para usos lucrativos de interés general.

5.– Orientación del urbanismo hacia el principio de desarrollo sostenible aplicado a los modelos urbanos a través de su relación con el medio ambiente y la preservación del patrimonio histórico, artístico y cultural de los pueblos y ciudades.

6.– Garantía del derecho a la participación ciudadana a través de la figura de los programas de participación ciudadana obligatorios en los planes de ordenación estructural y del Consejo Asesor del Planeamiento obligatorio en determinados municipios. Ello se suma al derecho a la información urbanística a través del aseguramiento de la integridad y de la coherencia del planeamiento urbanístico municipal respecto a los instrumentos de ordenación territorial y sectorial.

## IV

La ley se estructura en seis títulos, siguiendo el esquema legislativo ya tradicional.

El título I aborda las definiciones básicas en materia de urbanismo y los principios ordenadores de toda su regulación, que pretenden ser al mismo tiempo criterios de su interpretación. El orden de situación de los respectivos títulos obedece a la lógica de su interpretación, y no tanto al orden tradicional establecido por otras legislaciones en la materia.

Establece el título I de la norma los principios generales de la ley, entre los que obviamente se encuentra el de subordinación al interés público de toda la actuación administrativa y particular en materia de urbanismo, lo que implicará el pleno control de su existencia en sede judicial mediante la acción pública también reconocida, la garantía de sostenibilidad ambiental de toda la acción de transformación y utilización del suelo, y la garantía de la participación ciudadana.

Halaber, titulu berean garrantzia eta zentralitatea ezartzen da, hain zuzen ere ondorio bererako, hau da, herritarrek udaleko hirigintza-plangintzari buruzko informazioa izateko duten eskubidea bermatzeko. Lurralde-plangintzari garrantzia eta nagusitasuna aitortzen bazaio ere, horrek ezin du inola ere hirigintza nolabaiteko lurraldearen arloko plangintza bihurtu, gaur egungo zenbait joerek nahi duten bezala. Hirigintza da lurzorua xede eta erabilera ezberdinetara lotu dezakeen bakarra; hori bai, lurraldearen antolamenduarekin koordinatuta, lege honetan xedatzen den bezala. Administrazioek udal-plangintzan duten konfiantza indartu egin behar da, eta, horretarako, herri-administrazioek emandako informazioaren ondoriozko ondare-erantzukizunaren bermea eskaini behar da, I. tituluak ezartzen duen moduan.

## V

Bestalde, II. tituluak lurzoruaren sailkapena, kalifikazioa eta araubidea erregulatzen du, gaur egun dagoen lege-esparruan, Estatuaren gaur egungo oinarriko legeriak sorrarazi duen egoerari segurtasun juridikoa emate aldera. Izan ere, legeria horrek, hiri-jabetzaren estatutuaren berdintasunezko bermearen eskumenetik bertatik, lurzorua sailkatzeko hiru kategoría inposatu baitzikio autonomia-erkidegoen hirigintzako eskumen eskusiboari: hiri-lurzorua, lurzoru urbanizagarria eta lurzoru urbanizaezina.

Sailkapen hori ez da batere eraginkorra lurzoruaren merkatuan esku-hartze publikoa gauzatu dadin; baina, edonola ere, sailkapena lege gisa jasotzeak Erkidegoko antolamenduan gaur egun dauden hutsuneak argituko ditu. Izan ere, hutsuneon ondorioz, jurisprudentziaren aldetik ziurgabetasun handia sortu da lurzoruaren jabeen eskubide eta eginbeharrei dagokienez, eta, batez ere, lurzorua urbanizazioaren bidez finkatzeari dagokienez.

Zalantzarik gabe, dagoeneko ez da sailkapena bera bakarrik lurzoruaren hirigintza-eraldaketaren segida zehaztuko duena, lurzoruaren kalifikazioa eta programazioa baino, eta horiek biak jarduketa integratu edo isolatuen menpe jarriko dira. Horrela, gainera, plangintzaren egilearen aginduak betetzeko eta erkidegoak aldateta horrek sorrarazten dituen gainbalioetan parte hartzeko behar den inbertitzeko ahalmenaren lehia erreala bermatzen da.

Hori bai, gure Erkidegoak lurzoruari eta etxebizitzari dagokienez behar duen arreta ezin da inola ere eman lurraldea kolonizatuz, hori, lege honek ezartzen dituen arazoak direla eta, urbanizazio-prozesutik kanpo geratu behar baita. Lurzoru urbanizaezin bezala sailkatu den hori –batez ere gure gizartearen ingurumen-eramangarritasuna bermatzeko erabiliko da– xede birekin baino ezin izango da erabili: nekazaritza eta abelazkuntzako beharrezanekin zerikusia duten eta horiei lotuta dauden bizitegi-erabileretarako; eta gure he-

Igualmente se establece en dicho título la relevancia y centralidad, precisamente también a dichos efectos de garantizar el derecho de información de los ciudadanos sobre el planeamiento urbanístico municipal. A pesar del reconocimiento de la importancia y la prevalencia del planeamiento territorial, en ningún caso puede permitir convertir al urbanismo en una suerte de planeamiento territorial sectorial, como algunas tendencias actuales pretenden. Sólo el urbanismo, bien que en la forma coordinada con la ordenación territorial prevista en esta ley, puede vincular el suelo a los distintos destinos y usos. La confianza de los administrados en el planeamiento municipal debe ser reforzada con la garantía de la responsabilidad patrimonial derivada de la información suministrada por las administraciones públicas en los términos establecidos en el título I.

## V

Regula el título II la clasificación, la calificación y el régimen del suelo en el marco legal existente, con el fin de otorgar seguridad jurídica a la situación que ha generado la actual legislación básica del Estado, que, desde el título competencial de la garantía igualitaria del estatuto de la propiedad urbana, ha impuesto sobre la competencia urbanística exclusiva de las comunidades autónomas una clasificación del suelo en tres categorías: urbano, urbanizable y no urbanizable.

Aunque dicha clasificación resulta un instrumento absolutamente ineficaz de intervención pública en los mercados de suelo, su integración legal en el ordenamiento autonómico clarificará las actuales lagunas, que han generado una gran incertidumbre jurisprudencial en relación con los derechos y deberes de los propietarios del suelo, especialmente en lo referente a la consolidación del suelo por la urbanización.

Obviamente, ya no será la clasificación por sí sola, sino la calificación y la programación del suelo, mediante su sometimiento a actuaciones integradas o aisladas, el principal instrumento que determinará la secuencia de transformación urbanística del mismo. Se garantiza así, además, la real concurrencia de la capacidad inversora que se precisa para cumplir los mandatos del planificador y la participación de la comunidad en las plusvalías que dicha transformación produzca.

Ahora bien, en ningún caso la atención de las necesidades de suelo y vivienda que precisa nuestra Comunidad podrán realizarse a costa de la colonización del territorio que, por las razones que establece esta ley, debe quedar fuera del proceso de urbanización. Dicho suelo, clasificado como no urbanizable, destinado fundamentalmente a garantizar la sostenibilidad ambiental de nuestra sociedad, sólo podrá ser destinado a fines residenciales relacionados y vinculados con las necesidades agropecuarias y a la recuperación de las construc-

rrialdeko eraikuntza historikoak berreskuratzeko. Lurzoru-mota hori behar ez bezala erabiltzen bada, edozein modutan, legeak horren aurka egingo du, lurzoruaren berezko balioak berreskuratze aldera. Xede horretarako, lagungarri gertatzen da lege honetan egiten den partzelatzeen arauketa.

Azkenik, II. tituluan birpartzelatzeak arautzen dira. Izan ere, horiek —nahitaezkoak ere bai— funtsezko tresna dira, ez soilik lurzoruaren urbanizazioak dakartzan irabazietan eta kargetan parte-hartze berdina izatea bermatzeko, bai eta Administrazioak lurzoru lortu dezan: bertan gauzatu ahal izango baititu aurretik aipatu diren etxebizitza babestuek edo eraikuntza berriari egikaritzea posible egingo duten aprobetxamenduak.

## VI

Ondoren, III. tituluan, plangintza orokorrean mekanismo egokiak sartu behar direla adierazten da; esate baterako, egiturazko antolamendua eta antolamendu xehekatua bereizi behar dira, hirigintza-tresnak onartzeko tramiteak arindu behar dira eta arlo horretan behar den dokumentazioa erraztu behar da. Era horretara, hirigintza-arloan hartutako erabakiak eta egin beharreko tramitazioak ez dira oztopo izango gizarteak lege honi dagokionez dituen beharriaz erantzuteko orduan.

Lege honetan kopuruei eta estandarrei dagokienez egindako arauketarekin, legegileak hirigintza-eredu jakin baten alde egin du apustu, 1976ko legegileak izan zuen kezka bide berean. Hiri-eredu harmonikoak, orekatuak eta iraunkorrak nahi ditugu, eta, hori horrela izan dadin, hirigintzarako estandar batzuk ezarriko dira, bai hiri-lurzorurako, bai lurzoru urbanizagarrirako; era horretara, hiriko bizimoduak beharrezko dituen hornikuntzak eta ekipamenduak kalitatezkoak eta nahikoak izango direla bermatuko da. Estanda horietako batzuk ezazagunak dira gure ohiko jardunean, eta nabarmendu beharrekoak. Lehenengoaren helburua, hain zuzen, hirigintzarako lurraren erabileran intentsitatea bermatzea da. Hori lortzeko, gutxieneko eraikigarritasunak ezarriko dira modu orokorrean, eta orobat eraikuntza bakoitzak, oinplanoan, gutxieneko okupazio bat eduki beharra okupatzekoa den eremuaren lurrazalarekiko. Bestalde, gure hirietan arbolak landatzea sustatuko da, gure Erkidegoan orain arte ez baita hirigintza arloan horrelako aurreikuspenik egon. Gainera, ekipamendu pribaturako nahitaez gutxieneko erreserba bat egin beharra ezarriko da, eta udalak ere aukera izango du etxebizitza babestuko zuzkidura sortzeko, betiere hiriko bizimodua atseginagoa, goxoagoa eta orekatuagoa izan dadin.

Ildo beretik joanda, berariaz debekatuta geratuko da hiria espazio aldetik banantzea; alegia, ezin izango da, transferentzien bitartez, interes orokorreko zerbitzuetarako derrigorrezko erreserba-portzentajeak inguru be-

ciones históricas de nuestro país. Todo uso indebido de dicho territorio es combatido en la ley con el fin de recuperar los valores propios del mismo. A este fin coadyuva la regulación de las parcelaciones que se realiza en esta ley.

Finalmente, se regulan en este título II las reparcelaciones, que, incluso de forma forzosa, se revelan como un instrumento indispensable ya no sólo para garantizar la igualdad en la participación de los beneficios y las cargas producidas por la urbanización del suelo, sino para que la Administración obtenga los suelos donde materializar los aprovechamientos que habrán de permitir la ejecución de las nuevas viviendas o construcciones de carácter protegido antes citadas.

## VI

El título III se hace eco de la necesidad de dotar al planeamiento general de mecanismos tales como la diferenciación entre la ordenación estructural y la pormenorizada, la agilización de los trámites de aprobación de los instrumentos urbanísticos y la simplificación de la documentación precisa, todo ello con el fin de que las determinaciones y tramitaciones urbanísticas no sean obstáculo a las necesidades sociales que esta ley pretende atender.

La regulación de esta ley de las cuantías y estándares prefigura el marco y la apuesta del legislador por un determinado modelo urbanístico, prosiguiendo la preocupación del legislador de 1976. Con el objeto de garantizar modelos urbanos armónicos, equilibrados y sostenibles se imponen los oportunos estándares urbanísticos en suelo tanto urbano como urbanizable, para garantizar la calidad y suficiencia de las diversas dotaciones y equipamientos que precisa una vida ciudadana de calidad. Entre ellos conviene destacar algunos desconocidos en la práctica actual. El primero tendente a garantizar la intensidad en la utilización del suelo para fines urbanísticos, a través de unas edificabilidades mínimas impuestas con carácter general así como de la obligación de ocupación mínima en planta de la edificación respecto a la superficie del ámbito a ocupar, ambas previsiones directamente relacionadas con el desarrollo sostenible. Por otra parte, se fomenta la presencia de arbolado en nuestras ciudades, ante la falta de previsión al respecto en el urbanismo que actualmente se conoce en nuestra Comunidad, al mismo tiempo que se establece un mínimo obligatorio de reserva para equipamiento privado y la posibilidad municipal de creación de la dotación residencial protegida, todo ello en garantía de una vida ciudadana más amable y equilibrada.

En esta misma línea, queda expresamente prohibida la segregación espacial de la ciudad mediante la concentración, por transferencias, de los porcentajes de reserva obligatoria de suelos para fines al servicio

retan kontzentratu, transferentzia horiek mugatu egingo direlako asko.

Horrez guztiaz gainera, bizitegi-erabilerako ehuneko jakin batzuk etxebizitza babestuak egiteko gorde beharra, gure Autonomia Erkidegoan ezaguna zen neurria, hedatu egingo da udalerrri gehiagotara, eta, egin behar erantsi gisa, zuzkidura-bizitegien figura berrirako lurzorua gorde beharra ere ezarriko da. Horrela jokatuta, luraren eta etxebizitzaren merkatuak erregulatzea lortuko da, beste lurralde batzuetan ezarritako desregulazio-arauegiek ez baitakarkiozte gizaritari ez onurarik ez elkartasunik.

Titulu honetan neurri handian handitzen da udalen autonomia hirigintza-antolamenduko planak eta tresnen kudeatzeko orduan. Hori dela eta, beharrezkoa da nabarmentzea egitura-antolamenduko zehaztapenak eta antolamendu xehatuko zehaztapenak bereizita egokigarritasuna irabazten dela, baina horrez gainera udalen esku uzten dela hirigintzako egitura-antolamendua eta, neurri handiagoan, antolamendu xehatua behin betiko onartzeko ahalmena, betiere udalez gaineko kontrolak ezarririk.

Azkenik, titulu honetako erregulazioarekin galerazi egin nahi da honako hau: hirigintza-antolamenduan aldaketa zehatzak eta berrikuspenak eginez, eraikita eta finkatuta dagoen hiriaren zuzkidura-lurzorua gutxitu eta, ondorioz, hiri-kalitatea desitxuratzea, herritarren bizi-kalitatearen kaltean.

## VII

Lege honetan funtsezkoa da IV. titulua. Horren bidez, luraren merkatuan administrazioak izan behar duen esku-hartzea arautu nahi da, batez ere lurzoru-ondare publikoei dagokienez. Egia da ondare horiek lehendik ere araututa egon izan direla gure ordenamendu juridikoan, baina, hala ere, ez dute behar besteko gaitasunik izan gure Autonomia Erkidegoak etxebizitza eta lurzoru publikoen alorrean izan dituen beharriazanezi erantzuteko; are gehiago, lehentasunik ez zuten helburuetarako ere erabili izan dira funts horiek inoiz. Lege honek, egoera nolakoa den ikusita, ahalegin handia egin du bere aurreikuspenak eta asmoak benetan hezurramitu eta gauzatu daitezen; horretarako, lurragin eragin mugatuko prezioetan erosteko aukera emango du, lur horiek zertarako erabiliko diren aintzat hartuta, eta lurrazal-eskubideak ematen dituen aukerak erabiliko dira bitarteko formula modura.

Legeak ezarritakoen artean, badira tresna ezagun batzuk: lurzoru-erreserbak daude, bai lurzoru urbanizagarri mugatugabeen, bai babes-erregimenik gabeko lurzoru urbanizaezinean, eta lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideak ere bai. Horiez gain, badira beste mekanismo batzuk ere; esaterako, lurrazal-eskubidea baliatuta, mugak jartzea lurzorua besterentzeari; hala, besterentzea, eraginkorra izango bada, lehiaketa-sistemaren bidez egingo da eta, borondatezko

del interés general, que se limita de manera importante.

A todo ello se añade la extensión de la obligación de reserva de determinados porcentajes del uso residencial para fines de vivienda protegida, ya conocida en nuestra Comunidad, a otros municipios, a la que se le suma la obligación adicional de reservar suelo con destino a la figura novedosa de los alojamientos dotacionales. De esta manera se garantiza la regulación de los mercados del suelo y la vivienda ante la ineficacia e insolidaridad social del marco desregulador adoptado en otros ámbitos.

Este título extiende muy significativamente la autonomía municipal en la gestión de los planes e instrumentos de ordenación urbanística. En este sentido, conviene resaltar, además de la versatilidad que otorga la separación de las determinaciones de ordenación estructural y pormenorizada, el otorgamiento a los ayuntamientos, bajo los controles supramunicipales lógicos, de la competencia de aprobación definitiva de la ordenación urbanística estructural y, en mayor medida, de la pormenorizada.

Finalmente debe resaltarse que la regulación de este título pretende impedir que las alteraciones de la ordenación urbanística, bien por modificación puntual, bien por revisión, desfiguren la calidad urbana mediante decrementos de la superficie dotacional de la ciudad ya edificada y consolidada en detrimento de la calidad de vida de sus ciudadanos.

## VII

Título fundamental de la ley es el IV, destinado a regular la intervención administrativa en el mercado del suelo y especialmente los patrimonios públicos del suelo. Aunque tradicionalmente regulados en nuestro ordenamiento jurídico, dichos patrimonios realmente no han sido capaces de atender a las necesidades de vivienda y suelos públicos de nuestra Comunidad, e incluso se han destinado sus fondos a fines que no aparecen como preferentes entre los que determinaron su constitución. La ley, consciente de esta situación, realiza un esfuerzo en hacer operativas sus previsiones posibilitando la adquisición de suelos a precios limitados de repercusión, según los usos a que se destinen, y explotando las posibilidades otorgadas por el derecho de superficie como fórmula intermedia.

La ley establece, junto a los instrumentos conocidos de las reservas en suelo urbanizable no delimitado y no urbanizable no sometido a régimen de protección y los derechos de tanteo y retracto, diversos mecanismos, como la limitación de su enajenación, que habrá de ser operativa por vía de concurso necesariamente y, de forma voluntaria, en régimen de uso y disfrute temporal, a través del mecanismo citado del derecho de superficie. Así mismo, se recupera la posibilidad, desaparecida

izaeraz, aldi baterako erabilera- eta gozamen-erregimena izango du. Era berean, euskal legeriatik kenduta zegoen aukera bat berreskuratuko da; alegia, udalerrian hiri-lurzoruko zenbait area mugatuko dira, udalak gune horietan lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea izan dezan, bai biziberritu eta berronertu nahi diren hiri-eremuetan egingo diren eraikin eta etxeei dagokienez, bai eta etorkizunean erabiltzekoak diren lursailei dagokienez, era horretara ondare publikoak eratu ahal izateko.

Azkenik, interbentzio-araubidea zabaldu egin da, etxebizitza babestuak egiteko lurzorua eskuratzeko ohiko politikarako ez ezik, baita bereziki babestu beharreko landa- eta baso-lurra eskuratzeko ere, aginte publikoek erazagoa izan dezaten lur hori zaintzea eta kudeatzea.

## VIII

Aurrerago joan, eta V. titulura iritsita, hirigintza-kudeaketari buruz zegoen pentsamolde zaharkitua gaindituko dugu lege honetan. Plangintza egikaritzeko ardura, aurrerantzean, erakunde publikoena izango da erabat; egia da modu pribatuan parte hartzeko aukera ere bermatuta egongo dela, administrazioarekin zuzenean hitzarmena eginda edo lehiaketa askera aurkeztuta, eta eragile urbanizatzailearen figura erabilita, edo, hala dagokionean, eragile eraikitzailearen figura erabilita.

Titulu honetan, bestalde, hirigintzako egikaritzefiguren erregulazioaren esparruan, hirigintza-jarduketako programen tresna garatu da, legean nolabait zentralitate-izaera duena. Beraz, programazioa ezarrita, Europar darabiltzaten antzeko parametroetan jarri da hirigintza gure Autonomia Erkidegoan. Hortaz, gure ohiko hirigintzan ezagunak diren beste arau-tresna batzuekin batera erabiliko dira jarduketa-programak, hemen baino lehen beste autonomia-erkidego batzuetan ere erabili izan diren eta eraginkorrak direla erakutsi duten figura horiek. Programon bidez, jabetza-estatutua errespetatuta betiere, ondo bermatuta utzi nahi da, baitetik, administrazioak hirigintza-prozesua kontrolatu eta zuzenduko duela, eta, bestetik, hirigintza hori interes orokorra duten helburuetara bideratuta egongo dela.

Era horretara, indartu egingo da hirigintzak dakartzan eginbeharrak eta lagapenak behar bezala beteko direla bermatzeko udalak izango duten gaitasuna ere, lehengo kontzeptu zaharrak baztertuta, urbanizazio-obrak ez baitziren orain arte lurraren jabetzarako zama hutsa besterik. Administrazioak, mekanismo hori erabilita, helburu bakar bat hartuko du ardatz: hiriak eta urbanizazio-egitura publikoak kalitatezkoak izan daitezten lortzea; beraz, bere orain arteko joera baztertu, eta urbanizatzezkoak ziren lurren jabeen hirigintza-aprobetxamenduak babesteko zeregin hori alde batera utziko du aurrerantzean.

da de la legislación vasca, de delimitación de determinadas áreas de suelo urbano del municipio para el ejercicio del derecho de tanteo y retracto sobre sus construcciones y edificaciones en zonas urbanas sometidas a procesos de rehabilitación y regeneración y sobre terrenos de desarrollo futuro para la constitución de los patrimonios públicos.

Finalmente, se ha extendido este régimen de intervención para, además de la tradicional obtención de suelo con destino a vivienda protegida, la obtención de suelo agrícola o forestal de especial protección con la finalidad de facilitar su preservación y gestión en manos públicas.

## VIII

Confirma el título V la desaparición de la noción de cimonónica de la gestión urbanística. La responsabilidad de la ejecución del planeamiento pasa a ser exclusivamente pública, si bien se garantiza la participación privada, en régimen de concertación directa con la Administración o bien de libre concurrencia, mediante la figura del agente urbanizador y, en su caso, del agente edificador.

Desarrolla también este título, en el marco de la regulación de las figuras de ejecución urbanística, el instrumento, que en la ley adquiere cierto carácter de centralidad, de la programación de la actuación urbanizadora. Ello implica la colocación del urbanismo en nuestra Comunidad en parámetros similares a los europeos, mediante la implantación de la programación. Junto a otros instrumentos normativos conocidos en nuestro acervo urbanístico, los programas de actuación, cuya efectividad ha quedado demostrada en la aplicación de diversas normas autonómicas anteriores a la vasca, los programas de actuación urbanizadora se implantan para garantizar, con respeto al estatuto de la propiedad en todo caso, el control y dirección del proceso urbanizador por la Administración y la orientación de la misma a los fines del interés general.

De esta manera se reforzará la capacidad municipal para garantizar el cumplimiento de los diferentes deberes y cesiones urbanísticos en sustitución de la concepción de las obras de urbanización como una mera carga para la propiedad del suelo. Mediante este mecanismo, la Administración centrará como objetivo de su actividad la obtención de una ciudad y una infraestructura pública de urbanización de calidad, abandonando su tradicional función tuitiva de los aprovechamientos urbanísticos de los propietarios del suelo a urbanizar.



Eragile urbanizatzailearen funtsezko zeregina, hain zuzen, orubeak sortzea, eta, hala dagokionean, orube horietan eraikitzea izango da. Horren truke, lan horretatik onura hartzen duenak ordaindu beharko dio, hau da, lurzorua jabe izanda, eta lurzorua hirigintzaren bidez eraldatzeko jardunean parte hartu nahi duelarik, eragile urbanizatzaile modura eratu ez den horrexek. Prozedura horretatik kanpo geratu nahi duen jabeak dagokion balio justua jasoko du, eta prozeduran parte hartzen duenak, berriz, konpentsazio modura, dagozkion orubeak, eraikinak edo diruzko konpentsazioak eskuratuko ditu. Era berean, jarduteko modu berri hori erabilita, harremanetarako bide berriak urratuko dira administrazioaren eta lurzorua jabetza pribatuaren artean, batez ere, beren kalifikazioaren arabera, lege honek erabilera babestuetarako izango diren orubeak lortzeko orduan.

Horrez gainera, programak erabilita, enpresari eta profesionalen ekimen pribatuen partaidetza sustatzen da, partaidetza hori ezinbesteko tresna baita interes publikoak eskatzen duena betetzeko, alegia, hirigintzako antolamenduan aurreikusitakoak garaiz eta dagokion unean egikaritzeko.

Edonola ere, antolamendua egikaritzeko bi modu besterik ez da egongo:

- Jarduketa isolatuak. Horien bitartez, hiriko partzela jakin bakar bat eraikiko da, eta hirigintzako antolamenduan aurreikusitako hirigintza-erakigarritasunari eta -erabilerei erantzuteko besteko urbanizazio-maila izango du partzela horrek.

- Zuzkidura-jarduketak. Horien bitartez, hirigintza-erakigarritasuna handitzen den kasuetan osatu egingo dira zuzkidura-lagapenak, hirigintzako antolamenduan aprobetxamenduzko eta zuzkidurazko erabileren artean aurreikusita zegoen aurreko oreka bermatzeko beharrezkoa den neurrian.

- Jarduketa integratuak. Horien bitartez, orube bat edo batzuk sortuko dira, beharrezko diren hirigintza-zerbitzuak eta -azpiegiturak aurretiaz edo aldi berean ezarrita.

- Sistema orokorrak edo lokalak nahitaezko desjabetze bidez egikaritzeko jarduketak, sistemok jarduketa integratuetan sartuta edo haiei atxikita ez daudenean.

Legean lehengo lankidetzaren sistema ere jasotzen da. Sistema horren arabera, hirigintzako jarduketa administrazioak berak egikaritzen du, eta langintza horretan, dagozkien urbanizazio-kuotak igortzen zaizkie jabeei, edo, dagozkion aprobetxamendua lortuta, konpentsazioa ematen zaio lankidetzaren horri.

Eraikuntza-gaietan ere, urbanizazio-gaietan gertatzen den bezalaxe, legeak amaiera-epe jakinak ezartzen ditu lanak burutzeko, eta, horrez gainera, interes orokorrari erantzungo zaiola bermatzearen, berariazko programa bat ematen dio administrazioari, lurzorua

Función básica del urbanizador habrá de ser la producción de solares y, en su caso, su edificación. Para ello habrá de ser retribuido por quien se beneficia de ello, esto es, la propiedad del suelo que no se constituya en dicho agente y que desee participar en la actividad de transformación urbanística del suelo. La propiedad que desee retirarse de este proceso obtendrá el correspondiente justiprecio, y la que participe, en compensación, obtendrá los correspondientes solares, edificaciones o compensaciones en metálico. Así mismo, la incorporación de esta figura permite arbitrar nuevas maneras de relación entre la Administración y la propiedad privada del suelo, especialmente en materia de obtención de los solares que se destinarán, por su calificación, a los usos protegidos por esta ley.

Así mismo, a través de la figura de los programas se fomenta la participación de la iniciativa privada empresarial y profesional como instrumento indispensable para llevar a efecto el interés público en el que se concreta la ejecución temporal de las previsiones de la ordenación urbanística.

En todo caso, la ejecución de la ordenación podrá tener los siguientes modos:

- Mediante actuaciones aisladas tendentes a edificar una sola parcela urbana concreta con un nivel de urbanización suficiente para atender los usos y la edificabilidad urbanística previstos en la ordenación urbanística.

- Mediante actuaciones de dotación tendentes a completar, en situaciones de incremento de edificabilidad urbanística, las cesiones de dotaciones necesarias para garantizar el anterior equilibrio entre usos lucrativos y dotacionales previstos en la ordenación urbanística.

- Mediante actuaciones integradas destinadas a producir uno o más solares mediante la previa o simultánea implantación de los correspondientes servicios e infraestructuras urbanísticas.

- Mediante actuaciones de ejecución de sistemas generales o locales cuando los mismos no figuren incluidos ni adscritos a actuaciones integradas por el sistema de la expropiación forzosa.

La ley recoge también el antiguo sistema de cooperación, en el que la actividad urbanizadora es realizada por la Administración contra el correspondiente giro de cuotas de urbanización a los propietarios o compensación de su labor a través de la obtención del correspondiente aprovechamiento.

En lo relativo a la edificación, en la misma línea que para la urbanización, la ley no sólo establece plazos perentorios para su materialización, sino que dota a la Administración de un programa específico para lograr la concurrencia de la iniciativa privada en el proceso de

jabearen oniritzia lortu beharrik izan gabe eraikuntza-prozesuan ekimen pribatuak lehiaketan parte hartzeko modua izan dezan, edo, eraikitzeke eginbeharra bete gabe utziz gero, ondasuna inoren kontura besterentzeko bidea izan dezan.

Eraikinak berritu, berroneratu eta artatzeko eginbeharrek direla eta, batetik, berrikuntza nagusi gisa, beharrezko jarriko da aldiro-aldiro eraikinen egoera ikuskatzea, eta bestetik, eragotzi egingo da aurri-deklarazioa hiri-lurzorwarekin espekulatzeko beste bide bat izatea.

Bestalde, arreta berezia jarri da bermatzeko programa guztien tramitazioa koherentea eta bateragarria izatea batzuen zein besteen interesekin aldi berean, alegia, bai interes orokorrek, bai dena delako programarako parte hartzen duten eragile pribatuekin.

Gainera, administrazioak programazioa egikaritzeko ardura beretzat hartzen duen kasuetarako, gure ordenamenduak administrazioari ematen dizkion mekanismo guztiak indartzen eta sendotzen ditu lege honek, hirigintzako arazoak direla-eta desjabetze-sistemari buruzko araubide integratua ezarrita.

Azkenik, zilegi izango da, halaxe baitago jasota eta aitortuta legean, bai lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideen menpeko eremuetan dauden etxebizitza hutsen jabetza kentzea, bai eta babes publiko araubideren bati atxikitako etxebizitzaren jabetza ere kentzea. Sistema hori jabearentzat beharrezko diren berme guztiekin jarriko da martxan, eta hiria berroneratzeko eta beste bizileku bat emateko kontuan iruzurrak eragozteko programa publiko batzuk indartzeko balio izango du; arauketa berria eman zaio azkenengo gai horri, hirigintzako eragileek eskatutako hobekuntza batzuk sartuta.

## IX

Legeak, bukaera aldean, VI. titulua ere badu, hirigintza-arloan legea betetzen dela berriaz babesteko, bai arau-hausteari aurrea hartuta, bai urratutakoa berriz bere onera ekarrita; hirigintza-arloko arau-hausteari aurrea hartzerakoan, obra eta jarduketa klandestino guztiak badaezpada berehalakoan etenda geratuko dira, eta arlo honetan ondorioz izan lezaketen jardun guztiek lizentzia bana beharko dute.

Orain arte, eraikin klandestinoak eraistearen kontrako joera nagusitu da gure gizartean, gaizki ulertu dugulako interes publikoak zer eskatzen duen. Begien bistakoa da, ordea, interes publikoak, hain juxtu ere, kontrako eskatzen digula, alegia, lizentziarik gabe edo agindutakoaren kontra erabili eta okupatu diren lur horiek liberatzea eskatzen digula.

Horretarako, lege honek bermatzen du legez kanpokatzen jo litezkeen eraikinak eraitsi egingo direla lege-haustea egin duen jabearen beraren kontura, eta jokae-

edificación sin necesidad de contar con la aprobación de la propiedad del suelo o para acudir, en caso de incumplimiento del deber de edificar, a la enajenación por cuenta ajena del bien para garantizar el cumplimiento del interés general.

Respecto a los deberes de rehabilitación y conservación de los edificios, se establece como principal novedad la obligación de inspección periódica del estado de conservación de los mismos, y se evita que la declaración de ruina se convierta en un procedimiento más de especulación del suelo urbano.

Por otra parte, se ha prestado especial atención a garantizar que la tramitación de todos los programas sea coherente y conciliable simultáneamente con el interés público y los intereses de todos los agentes privados que participen en la adjudicación del correspondiente programa.

Además, la ley refuerza todos los mecanismos que nuestro ordenamiento otorga a la Administración en caso de que esta reserve la ejecución de la programación, estableciendo una regulación integrada del sistema de expropiación por motivos urbanísticos.

Así mismo, se incorpora y reconoce la legitimación de expropiación de las viviendas desocupadas situadas en áreas sometidas a los derechos de tanteo y retracto y de las viviendas sometidas a algún régimen de protección pública. Su funcionamiento, con todas las garantías precisas para el propietario, servirá de refuerzo de diversos programas públicos destinados a la regeneración urbana y a la evitación del fraude en materia de realojo, cuya novedosa regulación introduce una serie de mejoras demandadas por los operadores urbanísticos.

## IX

Concluye la ley estableciendo un título VI específicamente destinado a tutelar el cumplimiento de la legalidad urbanística, tanto con carácter preventivo, mediante la suspensión cautelar inmediata de toda obra u actividad clandestina y sometimiento a licencia a toda actividad trascendente a estos efectos, como con carácter reparador del orden infringido.

2.– Las ordenanzas y los catálogos son instrumentos complementarios de ordenación urbanística.

#### SECCIÓN PRIMERA PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA

**Artículo 61.**– Contenido sustantivo del plan general.

El plan general de ordenación urbana establece las siguientes determinaciones de ordenación:

a) Con carácter mínimo, la ordenación estructural del término municipal completo y la ordenación pormenorizada del suelo urbano que el plan general incluya en la categoría de suelo urbano consolidado.

b) Con carácter potestativo, la ordenación pormenorizada del suelo urbanizable sectorizado y del suelo urbano no incluido por el plan general en la categoría de suelo urbano consolidado, pudiendo ser remitida en ambos supuestos a su ordenación por planeamiento de ordenación pormenorizada.

**Artículo 62.**– Documentación.

1.– El contenido de los planes generales se formalizará con carácter mínimo en los siguientes documentos:

a) Memoria informativa y justificativa, que deberá recoger toda la información que contenga los elementos de juicio para el ejercicio de la potestad de planeamiento, y describir el proceso de formulación y selección de alternativas para la adopción de decisiones, el análisis de las alegaciones, sugerencias y reclamaciones formuladas a título de participación ciudadana, y la justificación de las soluciones asumidas.

b) Memoria justificativa de cumplimiento del informe preliminar de impacto ambiental, que así mismo deberá motivar la ordenación adoptada desde el principio

arrazoitu beharko da hautatutako antolamendua, eta lurzorua planean aurreikusitakoa betetzeko duen hartzegaitasuna ere kontuan izan.

- c) Informazio-planoak.
- d) Egiturazko antolamenduaren planoak.
- e) Antolamendu xehatuaren planoak.
- f) Ekonomiaren eta finantzen aldetik duen bideragarritasunaren azterketa.

2.– Plan orokorretan hirigintzarako eta eraikuntzarako katalogoak eta ordenantzak ere sartu ahal izango dira.

#### BIGARREN ATALA PLANGINTZA OROKORRA BATERAGARRI EGITEA

**63. artikulua.**– Plangintza orokorra bateragarri egitea.

1.– Udalerrri bat baino gehiagoren mugako inguruetan, hirigintza-garapenaren ezaugarriak eta beharrak dirrela-eta, beharrezkoa baldin bada tartean diren plan orokorren egituren antolamendua koordinatzea eta lan hori egingo duen lurralde-antolamenduko tresnarik ez baldin badago, ukitutako udalek bateragarritze-plan bat egiteko akordioa har dezakete. Eta, halako akordiorik ez badago, ukitutako udaletako edozeinek bere esku du lurralde historikoko dagokion organoari gai horri buruzko txosten loteslea eskatzea. Bateragarritze horrek lurralde historiko bat baino gehiago hartzen baditu bere baitan, Jaurlaritzaren Kontseiluak egin behar du txosten hori, Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak aldeko proposamena egin ondoren.

2.– Bi hilabeteko epea izango dute txostena egiteko, eta berrikusketa- edo, hala badagokio, aldaketa-prozesuari hasiera ematea ekarriko du, ukitutako plan orokorretan txosteneko zehaztapenak behar bezala jasotzeko eta txertatzeko.

3.– Plangintza orokorraren bateragarritze-planen edukia formalizatzeko, gutxienez, plan orokorrerako behar diren antzeko agiriak erabili beharko dira, eraman-garritasun-azterketa izan ezik. Agiri horiek, hori bai, bateragarritu beharreko sektoreari buruzkoak izango dira soilik.

#### HIRUGARREN ATALA SEKTOREKATZE-PLANAK

**64. artikulua.**– Sektorekatze-planak.

1.– Sektorekatze-planak tresna batzuk dira, hirigintzaren egiturazko antolamendurako zehaztapen batzuk ezartzeko erabiltzen direnak, zehaztapen horiekin lurzoru urbanizagarri sektoretugabe gisa sailkatutako lur-sailak hirigintza eginez eraldatzeko.

2.– Sektorekatze-planek osatu egiten dute, eraldatze-ekimen bat duen lurzoru urbanizagarri sektoretugabe horren gainean, plan orokorraren egiturazko an-

de desarrollo sostenible, considerando la capacidad de acogida de los suelos para el cumplimiento de las previsiones contenidas en el plan.

- c) Planos de información.
- d) Planos de ordenación estructural.
- e) Planos de ordenación pormenorizada.
- f) Estudio de viabilidad económico-financiera.

2.– Los planes generales podrán incluir así mismo los catálogos y las ordenanzas de urbanización y de edificación.

#### SECCIÓN SEGUNDA COMPATIBILIZACIÓN DEL PLANEAMIENTO GENERAL

**Artículo 63.**– Compatibilización del planeamiento general.

1.– Cuando las características y necesidades del desarrollo urbano en las zonas limítrofes de varios términos municipales hagan necesario coordinar la ordenación estructural de los planes generales afectados, y en defecto de un instrumento de ordenación territorial que lo realice, los ayuntamientos afectados podrán acordar la elaboración de un plan de compatibilización. En defecto de tal acuerdo, cualquiera de los municipios afectados podrá solicitar del órgano competente del territorio histórico un informe vinculante al respecto. En el supuesto de que la compatibilización afecte a varios territorios históricos, la emisión del informe le corresponderá al Consejo de Gobierno, previa propuesta favorable de la Comisión de Ordenación del Territorio.

2.– El informe a que se refiere el apartado anterior se emitirá en el plazo de dos meses, y determinará la incoación del procedimiento de revisión o, en su caso, modificación, a los efectos de la adecuada incorporación e integración de sus determinaciones en los planes generales afectados.

3.– El contenido de los planes de compatibilización del planeamiento general se formalizará, con carácter mínimo, en similares documentos que los previstos para el plan general, con la excepción del estudio de sostenibilidad, si bien referidos exclusivamente al ámbito objeto de compatibilización.

#### SECCIÓN TERCERA PLANES DE SECTORIZACIÓN

**Artículo 64.**– Planes de sectorización.

1.– Los planes de sectorización son los instrumentos mediante los cuales se establecen las determinaciones de la ordenación urbanística estructural para acometer la transformación urbanística de terrenos clasificados como suelo urbanizable no sectorizado.

2.– Los planes de sectorización completan la ordenación estructural del correspondiente plan general sobre el ámbito de suelo urbanizable no sectorizado ob-

tolamendua. Eta bere helburuak iristeko, sektorekatze-plan orok baldintza hauek bete behar ditu:

a) Dakartzan zehaztapen guztiek koherenteak izan behar dute lurraldearen garapen eramangarriko estrategia orokorrekin.

b) Hirigintzako proposamen berriak ondo txertatu behar ditu udal-antolamenduaren egituran –dagokion plan orokorrean egongo da definiturik egitura hori–.

c) Egiturazko zehaztapenak finkatu behar ditu, zehaztapen horiei lotu dakizkien gero bai plan partzialen antolamendu xehatuko zehaztapenak, bai egikaritzeko beharrezko kudeaketa-tresnak.

#### 65. artikulua.– Sektorekatze-planen edukia.

1.– Sektorekatze-planetan zehaztapen hauek jaso behar dira gutxienez:

a) Sektorizatu beharreko lurzorua mugatzea, hirigintza bidez eraldatzeko, eta lurzoru hori antolatzeko oinarriko baldintzak zehaztea.

b) Sistema orokorren parte izan behar duten lursailak kalifikatzea, sektore berriaren barruan dauden edo ez kontuan izan gabe. Kalifikazio horrek, ordea, lursailok udal-egituran txertatzea eta aipatutako sistemak ezartzeko beharrezko lurzorua lortzea bermatu behar du.

c) Proposamenak udalaren eramangarritasun-estrategia errespetatzea bermatzea, konpromiso zehatzen bidez.

d) Lege honetan lurzoru urbanizagarri sektorekatu-rako jasota datozen egiturazko antolamenduko zehaztapen guztiak.

2.– Sektorekatze-planek, inola ere, proposatzen duten sektorerako antolamendu xehatu osoa ere egin eta bere edukian zati modura jaso ahal izango dute. Antolamendu xehatu horrek, nolana ere, plan partzialei edukien aldetik eskatzen zaizkien baldintzak bete behar ditu, eta hori eginez gero, ez da izango plan partzialik idatzi, izapidetu eta onartu beharrik.

3.– Sektorekatzearen ondorioz, baliteke sistema orokorreko areko osagai batzuk definitu beharra, handitu beharra edo sendotu beharra izatea; kasu horretan, sustatzen den sektorearen barruan egon ez arren, osagai horiek ere sektorekatze-planaren parte izango dira. Hori dela eta, irizpide orokor modura, sektorekatze-planak, betiere, sistema orokorren saretik plan orokorrean aurreikusita dauden elementuak handitzeko edo hobetzeko lanei emango die lehentasuna. Hala ere, lehenagotik dauden sareekin –bereziki azpiegitura-sareekin– loturak izateko premiazko elementu berriak ere definitu behar dituzte.

4.– Sektoreko edo sektoreetako toki-sistemen sareen kalifikazioa egingo du sektorekatze-planak. Nolanahi ere, tokiko sistema gisa kalifikatutako lurzoruen azalerak ez dira izango, inoiz, lege honetan eta legea gara-

jeto de una iniciativa de transformación. Para cumplir su función y objeto, todo plan de sectorización deberá:

a) Ser coherente, en todas sus determinaciones, con las estrategias globales para el desarrollo sostenible del territorio.

b) Resolver la adecuada integración de la nueva propuesta urbanística en la estructura de ordenación municipal definida por el correspondiente plan general.

c) Establecer las determinaciones propias de carácter estructural a las que deberán sujetarse las determinaciones de ordenación pormenorizada propias del plan parcial y los instrumentos de gestión necesarios para la ejecución.

#### Artículo 65.– Contenido de los planes de sectorización.

1.– Los planes de sectorización habrán de contener, como mínimo, las siguientes determinaciones:

a) La delimitación del suelo que es objeto de sectorización para su transformación urbanística, estableciendo para el mismo las condiciones básicas de ordenación.

b) La calificación de los terrenos que deben formar parte de los sistemas generales, sean o no interiores al nuevo sector, de forma que se garantice su integración en la estructura municipal y la obtención del suelo necesario para su implantación.

c) Los compromisos concretos que garanticen el respeto de la estrategia municipal de sostenibilidad.

d) Todas las determinaciones de ordenación estructural previstas en la presente ley para el suelo urbanizable sectorizado.

2.– Los planes de sectorización podrán incluir como parte de su contenido la ordenación pormenorizada completa del sector que proponen, cumpliendo los requisitos de contenido exigidos a los planes parciales, en cuyo caso será innecesaria la redacción, tramitación y aprobación de estos últimos.

3.– Asimismo, formarán parte del plan de sectorización aquellos elementos exteriores al sector que se promueve e integrantes de las redes de sistemas generales que requieran definirse, ampliarse o reforzarse como consecuencia de la sectorización. A tales efectos, como criterio general, el plan de sectorización optará preferentemente por establecer intervenciones de ampliación o mejora sobre elementos de la red de sistemas generales ya previstos en el plan general, si bien este criterio no le eximirá de definir los nuevos elementos necesarios para asegurar las conexiones a las redes existentes, especialmente las de infraestructuras.

4.– El plan de sectorización calificará las redes de sistemas locales de los sectores. En todo caso, las superficies de los suelos calificados como sistemas locales no serán nunca inferiores a las previstas en la presente ley

tzeko xedapenetan urbanizagarri sektorekatu gisa sailkatutako lurzoruen azalerak baino gutxiago.

5.– Sektorekatze-planak justifikatu beharko du sektore barruko eta kanpoko azpiegiturak eta zerbitzuak nahikoak direla proposamenaren beharrezanean erantzuteko.

**66. artikulua.**– Agiriak.

Gutxienez, agiri hauek osatuko dute sektorekatze-plana:

a) Memoria bat, bi zati hauek izango dituena. Alde batetik, plan orokorrak, lurralde-plangintzak edo sektore-xedapen aplikagarriak bai sektoreak mugatzeaz buruz ezarritako baldintzak bai sektoreak antolatzeaz buruz ezarritako baldintzak bete direla ziurtatuko du. Eta bestetik, alternatiba posibleen artean proposatu den antolamendua justifikatzeko garrantzitsua den informazio guztia jasoko du.

b) Memoria bat, bi gauza hauek justifikatzeko: alde batetik, lurraldea erabiltzeko eta hirigintza garatzeko aukeraturako eredu eramangarria dela, eta bestetik, eredu hori, dituen ekimen- eta kudeaketa-ahalmenak eta ekonomia- eta finantza-aukera publikoak eta pribatuak kontuan izanik, bideragarria dela.

c) Sektore-azterketak. Aztergaia, bereziki, sektorekatzeak sistema orokorren sare publiko guztietan banan-banan dakartzak ondorioak izango dira, lurzoruko kalifikatzeko beharrak eta sareak sendotzeko edo berrietzeko beharrak zehaztu ahal izateko.

d) Memoria bat, ingurumen-kalteari buruzko aurreziazko txostena bete dela azaltzeko. Memoria horretan, gainera, garapen eramangarriaren ikuspuntutik arrazoi-tu beharko da hautaturako antolamendua, eta lurzoruko planean aurreikusitakoa betetzeko duen hartze-gaitasuna ere kontuan izan.

e) Informazio-planoak.

f) Egiturazko antolamenduaren planoak.

g) Beharrezkoak badira, antolamendu xehatuaren planoak.

h) Hirigintzako arauak. Hirigintzarako eta eraikuntzarako ordenantzek ere arau horien artean egon behar dute.

LAUGARREN ATALA

ANTOLAMENDU XEHATUKO PLANGINTZA. PLAN PARTZIALAK ETA PLAN BEREZIAK

**67. artikulua.**– Plan partzialen esparrua eta edukia.

1.– Plan partzialen xedea, hain zuzen, plan orokorrak edo dena delako sektorekatze-planak lurzoru urbanizagarri modura zehazturiko sektore jakin bat xehexehetuz antolatzea da.

2.– Sektorearen azalera guztiak, oso-osorik, lurzoru urbanizagarri sektorekatu modura sailkatu egon behar du, eta sailkapen horretan ezin du etenik eduki. Sektoreek, bestalde, egikaritze-unitate bat edo gehi-

**2. Liburukia: Araudia**

y disposiciones de desarrollo para los suelos clasificados como urbanizable sectorizado.

5.– El plan de sectorización deberá justificar la suficiencia de infraestructuras y servicios, tanto internos como externos al sector, en relación con las necesidades de la propuesta.

**Artículo 66.**– Documentación.

Los planes de sectorización se formalizarán, como mínimo, en los siguientes documentos:

a) Memoria en la que se justificará el cumplimiento de las condiciones sobre la delimitación de sectores y sus condiciones básicas de ordenación que hubieran establecido el plan general, el planeamiento territorial o las disposiciones sectoriales aplicables. Además, se recogerá toda la información relevante para justificar la ordenación propuesta entre las distintas alternativas posibles.

b) Estudio en el que se justificará la sostenibilidad del modelo de utilización del territorio y desarrollo urbano adoptado, así como su viabilidad en función de las capacidades de iniciativa y gestión y de las posibilidades económicas y financieras públicas y privadas.

c) Estudios sectoriales referidos especialmente a los efectos que supone la sectorización sobre las redes públicas de sistemas generales, a fin de determinar las necesidades de calificación de suelos con este destino y de ejecución de intervenciones de refuerzo o mejora.

d) Memoria justificativa de cumplimiento del informe preliminar de impacto ambiental, que así mismo deberá motivar la ordenación adoptada desde el principio de desarrollo sostenible y considerar la capacidad de acogida de los suelos para el cumplimiento de las previsiones contenidas en el plan.

e) Planos de información.

f) Planos de ordenación estructural.

g) Planos de ordenación pormenorizada, en su caso.

h) Normas urbanísticas, entendiéndose incluidas en las mismas, en su caso, las ordenanzas de urbanización y edificación.

SECCIÓN CUARTA

PLANEAMIENTO DE ORDENACIÓN PORMENORIZADA. PLANES PARCIALES Y ESPECIALES

**Artículo 67.**– Ámbito y contenido de los planes parciales.

1.– Los planes parciales establecen la ordenación pormenorizada de un sector delimitado por el plan general o por el correspondiente plan de sectorización en suelo urbanizable.

2.– La superficie total de un sector deberá contenerse íntegramente en suelo clasificado como urbanizable sectorizado, que no podrá tener carácter discontinuo. Los sectores podrán comprender una o más unidades de

go eduki dezakete. Unitate horiek plan partzialean edo urbanizatzeke jarduketa-programan egongo dira definiturik.

**68. artikulua.**– Plan partzialetako agiriak.

Plan partzialen edukia agiri hauetan egongo da jasota:

a) Memoria informatiboa eta justifikatiboa. Plangintza-ahalmena baliatzeko beharrezko irizpen-elementuak dakartzan informazio guztia jaso behar du; zehazki, erabakiak hartzeko alternatibak formulatzeko eta hautatzeko prozesuaren azalpena, herritarrek egindako alegazioen, iradokizunen eta erreklamazioen azterketa, eta plan orokorrak ezarritako egiturazko eta zuzentzarazko antolamenduari egokitzea.

b) Informazio-planoak.

c) Antolamendu xehatuaren planoak.

d) Egikaritzea antolatzeke eta kudeatzeko jarraibideen azterketa.

e) Plan orokorreko arauak garatzeko hirigintza-arauak.

f) Ekonomiaren eta finantzen aldetik duen bideragarritasunaren azterketa.

**69. artikulua.**– Plan berezien esparrua eta edukia.

1.– Plan bereziek bi esparru-mota har ditzakete antolamendua egiteko: batetik, udalerrri osoa edo udalerrriaren zati bat, lurzoru-mota bat edo gehiago hartuta, eta bestetik, plangintza orokorrak definitutako edo plan bereziak berak bere xedearekin bat etorri zehaztutako esparru edo area jakin bat.

2.– Plan berezien antolamendua, hain zuzen, planon xederako beharrezko diren zehaztapenen bidez egiten da, betiere dena delako plan orokorrak, hala badagokio, ezarritakoa betez.

3.– Plan partzialetarako aurreikusitakoen antzekoetan formalizatuko dira plan bereziaren zehaztapenak ere; agiriaren edukia, ordea, beren xedera moldatuko dute plan bereziek. Urbanizaezin modura sailkaturiko lurzorua ukitzen badute osorik edo zatiren batean, ingurumenarekiko kaltea neurtzeko arauetan eskatzen diren agiriak ere jaso behar dituzte.

**70. artikulua.**– Hiri-antolamenduko plan berezia.

Plan orokorraren egiturazko antolamendua garatzea da hiria antolatzeke plan bereziaren xedea, eta hori, hain zuzen, plan orokorrak egiturazko antolamendua atzeratzea baimentzen duen hiri-lurzoru areetan antolamendu xehatua ezarrita egiten du. Hiri-lurzoruari buruz plan orokorraren agirietan jasotako antolamendu xehatua aldatzeko ere erabil daiteke hiria antolatzeke plan berezia.

ejecución definidas en el plan parcial o el programa de actuación urbanizadora.

**Artículo 68.**– Documentación de los planes parciales.

El contenido de los planes parciales se formalizará en los siguientes documentos:

a) Memoria informativa y justificativa, que deberá recoger toda la información que contenga los elementos de juicio para el ejercicio de potestad de planeamiento, y describir el proceso de formulación y selección de alternativas para la adopción de decisiones, incluyendo el análisis de las alegaciones, sugerencias y reclamaciones formuladas a título de participación ciudadana, y la justificación de la adecuación a la ordenación tanto estructural como directiva establecida por el plan general.

b) Planos de información.

c) Planos de ordenación pormenorizada.

d) Estudio de las directrices de organización y gestión de la ejecución.

e) Normas urbanísticas de desarrollo del plan general.

f) Estudio de viabilidad económico-financiera.

**Artículo 69.**– Ámbito y contenido de los planes especiales.

1.– Los planes especiales establecen la ordenación, según los casos, para un término municipal completo o parte del mismo, comprendiendo una o varias clases de suelo, o para el ámbito concreto o área definida por el planeamiento general o que el propio plan delimite, en coherencia con su objeto.

2.– La ordenación propia de los planes especiales se establece mediante las determinaciones necesarias para su objeto específico, en los términos que disponga, en su caso, el correspondiente plan general.

3.– Las determinaciones del plan especial se formalizarán en documentos similares que los previstos para el plan parcial, si bien ajustando su contenido a su propio objeto, junto con la documentación exigida por la normativa de evaluación de impacto ambiental cuando dichos planes afecten en todo o en parte al suelo clasificado como no urbanizable.

**Artículo 70.**– Plan especial de ordenación urbana.

El plan especial de ordenación urbana tiene por objeto desarrollar la ordenación estructural del plan general mediante el establecimiento de la ordenación pormenorizada de aquellas áreas de suelo urbano para las que el plan general permite diferir dicha ordenación. El plan especial de ordenación urbana podrá ser así mismo utilizado para modificar la ordenación pormenorizada del suelo urbano contenida en la documentación del plan general.

**71. artikulua.**– Hiri berrikuntzako plan berezia.

Hiri-berrikuntzako plan berezien helburua honako jarduketara zehatz hauek garatzea izan liteke: hiri-lurzorua deskongestionatzea, zuzkidura publikoak eta ekipamendu kolektibo pribatuak sortzea, auzoak saneatzea, hiria berronertzea eta birgaitzea, barne-erreforma, mugigarritasun-arazoak edo estetika-arazoak konpontzea, ingurumena edo zerbitzu publikoak hobetzea, eta antzeko beste batzuk. Helburu horiek betetzeko, jarduketara zehatzak egingo dira, eta jarduketara horiek aurreko antolamenduaren funtsezko egitura gordeko dute.

**72. artikulua.**– Babes eta zaintza plan berezia.

1.– Babes- eta zaintza-plan berezien xedea da plan orokorretan jasota dagoen antolamendua osatzea, planen zehaztapenak xede dituzten elementu naturalak edota artifizialak babesteko arauen bidez. Beharrezkoa bada, plan orokorrean jaso gabeko beste babes-arau osagarriak ere zehaztu dezake plan bereziak.

2.– Plan bereziak babestu eta zaindu beharreko guztiak eta gauzak hauek izan daitezke: itsasertza, paisaia, hiriguneak edo landaguneak, eraikizunak, instalazioak, baratzeak, ereintzak, basoak eta ibaietako ekosistemak, eta orobat beste elementu natural edo artifizial oro ere.

3.– Babes- eta zaintza-plan bereziak, orobat, halarikotzat kalifikatutako eta sailkatutako ondasun kulturalen babes-arabidea ere jasoko du –bakoitzaren hasierako eta deklarazioko espedienteen arabera, eta babes-arabidea hori beren helburuen arabera garatu ahal izango du.

4.– Babes- eta zaintza-plan bereziek osagai hauek izango dituzte: antolamendu xehatuari dagozkion zehaztapenak, erdietsi behar dituzten helburuen arabera, agiriak, eta, gutxienez, plan partzialek eduki beharreko agiriak; eta, horiez gainera, urbanizaezin gisa sailkatutako lurzoruari osotasunean edo zati batean eragiten baldin badie planak, ingurumen-eragina ebaluatze-ko arautegiak agindutako agiriak.

BOSGARREN ATALA  
HIRIGINTZA ANTOLATZEKO GAINERAKO  
TRESNAK

LEHENENGO AZPIATALA  
XEHETASUN-AZTERKETAK

**73. artikulua.**– Xehetasun-azterketak.

1.– Antolamendu xehatuaren zehaztapenak edozein lurzoru-motatan osatzeko edo egokitzeko dira xehetasun-azterketak. Plangintzan aurreikusita ez badago, xehetasun-azterketak berak erakutsi behar du zehaztapen horiek osatu edo egokitzeko beharra dagoela edo hala komeni dela.

**Artículo 71.**– Plan especial de renovación urbana.

Los planes especiales de renovación urbana podrán tener por objeto el desarrollo de actuaciones concretas que, conservando la estructura fundamental de la ordenación anterior y sin alterar la edificabilidad urbanística, se encaminen a la descongestión del suelo urbano, a la creación de dotaciones públicas y equipamientos colectivos privados, al saneamiento de barrios, a la regeneración y rehabilitación urbana, a la reforma interior, a la resolución de problemas de movilidad o de estética, a la mejora del medio ambiente o de los servicios públicos y a otros fines análogos.

**Artículo 72.**– Plan especial de protección y conservación.

1.– El plan especial de protección y conservación tiene por objeto completar la ordenación establecida por los planes generales mediante normas de protección de elementos naturales y/o artificiales objeto de sus determinaciones. El plan especial podrá establecer, en su caso, otras normas de protección adicional no contempladas en el plan general.

2.– La protección y conservación a establecer por el plan especial se podrá referir al litoral, al paisaje, al medio urbano o rural, a edificaciones, instalaciones, huertos, cultivos, espacios forestales y ecosistemas fluviales, así como a cualquier otro elemento natural o artificial.

3.– El plan especial de protección y conservación deberá incluir el régimen de protección de los bienes culturales calificados e inventariados como tales, de acuerdo con sus correspondientes expedientes de incoación y declaración, y podrá desarrollar dicho régimen de protección de acuerdo con sus objetivos.

4.– Los planes especiales de protección y conservación contendrán las determinaciones propias de la ordenación pormenorizada y los documentos adecuados a los objetivos perseguidos por los mismos, y, como mínimo, los propios del plan parcial junto con la documentación exigida por la normativa de evaluación de impacto ambiental cuando dichos planes afecten en todo o en parte al suelo clasificado como no urbanizable.

SECCIÓN QUINTA  
RESTANTES INSTRUMENTOS DE ORDENACIÓN  
URBANÍSTICA

SUBSECCIÓN PRIMERA  
ESTUDIOS DE DETALLE

**Artículo 73.**– Estudios de detalle.

1.– Los estudios de detalle tienen por objeto completar o adaptar las determinaciones de la ordenación pormenorizada en cualquier clase de suelo. La necesidad o conveniencia de la complementación o adaptación deberá justificarse por los propios estudios de detalle, cuando su redacción no esté prevista por el planeamiento.



2.– Gauza hauetara mugatuko dira xehetasun-azterketak:

a) Antolamendu xehatuak agindutako sestrak eta lerrokadurak adieraztea, zuzentzea edo osatzea.

b) Bolumenak dena delako plangintzan aurreikusitakoaren arabera antolatzea. Bolumenen berrantolaketak tipologikoaren edo morfologikoaren ondorioz hala egiteko beharra badago edo hala egitea komeni bada, bide berriak egiteko edo zuzkidura publiko berriak egiteko lurzorua kalifikazioa ere jaso daiteke antolaketan.

c) Urbanizatzeko lanen, eraikuntzen, instalazioen eta gainerako obra eta hiri-elementu osagarrien alderdi eta ezaugarri estetiko eta konpositibo batzuk arautzea. Ezaugarri horiek antolamendu xehatuan egongo dira jasota.

3.– Xehetasun-azterketek ezingo dute, inola ere, kasuan kasuko plangintzak azterlan horiek egiteko ezarritako aurreikuspenak urratu edo horiei kasurik ez egin. Halaber, ezingo dute lurzoruari izendatutako erabilera aldatu, eraikigarritasuna handitu eta plangintzak dakartzan bideak edo zuzkidura publikoak ezabatu edo gutxiarazi, aurreko paragrafoa b) letran xedaturikoari ezer kendu gabe.

#### 74. artikulua.– Agiriak.

Xehetasun-azterketen edukia agiri hauetan egongo da jasota:

1.– Memoria bat, bi gauza hauek justifikatzeko: alde batetik, aurreko artikuluko 2. paragrafoan ezarritako legezko mugak errespetatu egin direla, eta bestetik, bere kasuan, plan orokorreko edo garapen-plangintzako zehaztapenak osatu edo egokitu egin behar direla.

2.– Informazio-planoak.

3.– Antolamenduaren planoak.

#### BIGARREN AZPIATALA HIRIGINTZAKO ANTOLAMENDUAREN TRESNA OSAGARRIAK

75. artikulua.– Udal-ordenantzak, hirigintzako antolamenduaren osagarri.

1.– Toki-araubidearen legeriaren arabera, eraikitze eta urbanizatzeko ordenantzak onartu behar dituzte udal guztiek.

2.– Urbanizazioa badute xede, udal-ordenantzetan gauza hauek denak egon behar dira arauturik: gutxieneko ezaugarriak eta kalitateak, proiektuen gutxieneko edukia, proiektuak onartzea eta benetan egikaritzea, urbanizazio-obra guztiak jasotzea eta mantentzea, bai eta hiri-altzariak jasotzea eta mantentzea ere. Eta ibiltzeko arazoak dituztenei bidea errazte aldera, urbanizazio-obrek bete beharreko baldintzak ere zehaztu behar dira udal-ordenantzetan. Gutxienez, indarrean dauden legeetan agindurik datozenak bete beharko dituzte.

2.– Las determinaciones de los estudios de detalle deben circunscribirse a:

a) El señalamiento, la rectificación o la complementación de las alineaciones y rasantes establecidas por la ordenación pormenorizada.

b) La ordenación de los volúmenes de acuerdo con las previsiones del planeamiento correspondiente. Cuando así sea necesario o conveniente por razón de la remodelación tipológica o morfológica de los volúmenes, esta ordenación puede comprender la calificación de suelo para el establecimiento de nuevos viales o de nuevas dotaciones públicas.

c) La regulación de determinados aspectos y características estéticas y compositivas de las obras de urbanización, construcciones, edificaciones, instalaciones y demás obras y elementos urbanos complementarios, definidos en la ordenación pormenorizada.

3.– Los estudios de detalle en ningún caso pueden infringir o desconocer las previsiones que para su formulación establezca el planeamiento correspondiente. Asimismo, tampoco pueden alterar el destino del suelo, incrementar la edificabilidad urbanística ni suprimir o reducir viales o dotaciones públicas establecidas en el planeamiento, sin perjuicio de lo dispuesto en la letra b) del apartado anterior.

#### Artículo 74.– Documentación.

El contenido de los estudios de detalle se formalizará en los documentos siguientes:

1.– Memoria que justifique el respeto de los límites legales establecidos en el apartado 2 del artículo anterior y, en su caso, de la necesidad o conveniencia de completar o adaptar las determinaciones del plan general o del planeamiento de desarrollo.

2.– Planos de información.

3.– Planos de ordenación.

#### SUBSECCIÓN SEGUNDA INSTRUMENTOS COMPLEMENTARIOS DE LA ORDENACIÓN URBANÍSTICA

Artículo 75.– Ordenanzas municipales complementarias de la ordenación urbanística.

1.– Todos los ayuntamientos deben aprobar, conforme a la legislación de régimen local, ordenanzas de la construcción, edificación y urbanización.

2.– Cuando tengan por objeto la urbanización, las ordenanzas municipales deben regular las características y calidades mínimas, los contenidos mínimos de los proyectos, su aprobación y ejecución material, la recepción y el mantenimiento de todas las obras de urbanización, incluido el mobiliario urbano. Las ordenanzas municipales establecerán las condiciones de accesibilidad para personas de movilidad reducida que deben cumplir las obras de urbanización, tomando como mínimas las que la legislación vigente prescriba.

3.– Eraikuntza badute xede, udal-ordenantzetan gauza hauek denak egon behar dira xehe-xehe arauturik, kasuan kasuko eraikitze-egintza baimentzeko eskatuko baitira: ezaugarri morfologikoak eta estetikoak, segurtasun-baldintzak, estabilitate-baldintzak, estankotasun-baldintzak, errazbideak, osasungarritasun-baldintzak, funtzionalitate-baldintzak eta, gainera, ez hirigintzako eraikigarritasuna ez lurzorua zertarakoa definitzen ez duten gainerako baldintza guztiak. Planen antolamenduak ezarritako baldintzak betetzea ere eskatu da baimena emateko.

4.– Ahal dela, energia aurrezteko irizpideak, kutsadura gutxiago isurtzeko irizpideak eta arkitektura bioklimatikoak dakartzan irizpideak beren baitan biltzen saiatuko dira udal-ordenantzak. Eta azken irizpide-sail horri leku bat uztearren, udal-ordenantzek udalerriko ezaugarri fisiko eta klimatikoei buruzko azterlan bat jaso beharko dute memoria justifikatiboan; esate baterako, haizeak batez ere nondik jotzen duen, eguzkiak non jotzen duen gehien edo ezaugarri geologikoak nolakoak diren aztertzeko. Eta, horrela, oinarri bat dagoeneko jarria izango dute, gero, araubidean, arkitektura bioklimatikoaren irizpideak ere jaso ahal izateko; adibidez, eraikuntzak nora begira jaso behar diren, zer erlazio izan behar den espazio libreen eta eraikinen garaieraren artean, nolakoa izan behar den isolamendu termikoa edo zeintzuk izan behar diren eraikinetako eguraste-baldintzak.

**76. artikulua.**– Katalogoak. Agiriak.

1.– Hirigintzako antolamenduan babestu beharreko ondasun naturalak eta artifizialak zein diren zehaztu eta zerrenda batera biltzen ditu katalogoak. Haien ezaugarriak ere jasotzen ditu, eta, beharrezkoa bada, zein maila edo kalifikazio dagokien –aplikatzekoa den legearen arabera– eta babes-arautzeko zehaztapenak zein plane-tan dauzkaten ere zehazten du.

2.– Independienteak izan edo ez, katalogoak plan orokorrekarekin batera izapidetu eta onar daitezke.

3.– Itxuraz, katalogoaren edukia administrazio-erregistro irisgarri bat izango da. Baliabide telematiko bidez ere iritsi ahal izango da hartara, eta erregistratutako ondasunen kokapenari, ezaugarriari eta babes-araubideari buruzko nahikoa informazio eman beharko du.

### III. KAPITULUA KOPURUAK ETA ESTANDARRAK

**77. artikulua.**– Hirigintza-eraikigarritasunaren mugak.

1.– Erabilera nagusia bizitegirakoa duten eta jarduketan integratu bidez egikaritzen diren hiri-lurzoru finkatugabeetan, lurzoru metro koadro bakoitzeko 2,30 metro koadroko sabai-indizea aplikatu arearen azaleran –sistema orokorretarako lurzoru zenbatu gabe–, eta horren emaitza izango da zuzkidura publikoek bestelako erabileretarako sestra gaineko gehieneko eraikigarritasun gordina.

3.– Cuando tengan por objeto las construcciones y edificaciones, las ordenanzas municipales deben regular pormenorizadamente los aspectos morfológicos y estéticos, los requisitos de seguridad, estabilidad, estanqueidad, accesibilidad, salubridad y funcionalidad, y las restantes condiciones no definitorias ni de la edificabilidad urbanística ni del destino del suelo que sean exigibles, junto con las determinadas por la ordenación establecida por los planes, para la autorización de los correspondientes actos de construcción o edificación.

4.– Las ordenanzas municipales procurarán introducir criterios de eficiencia energética, reducción de emisiones contaminantes y arquitectura bioclimática. A los efectos de esto último, las ordenanzas municipales incluirán en su memoria justificativa un estudio de los condicionantes físicos y climáticos en el territorio municipal, como vientos dominantes, zonas de soleamiento o composición geológica, que servirán de fundamento para la introducción en su regulación de criterios de arquitectura bioclimática, como la orientación de los edificios, la relación entre espacio libre y altura del edificio, el aislamiento térmico o las condiciones de aireación de las edificaciones.

**Artículo 76.**– Catálogos. Documentación.

1.– Los catálogos inventarán e identifican los bienes naturales o artificiales objeto de protección por la ordenación urbanística, recogiendo sus características, precisando, en su caso, la categoría o calificación que les corresponde, de acuerdo con la legislación aplicable, y especificando el plan que contiene las determinaciones reguladoras de su protección.

2.– Sin perjuicio de su independencia, los catálogos, pueden tramitarse y aprobarse simultáneamente con el plan general.

3.– El contenido de los catálogos se formalizará como registro administrativo accesible, incluso por medios telemáticos, con información suficiente sobre la situación, características y régimen de protección de los bienes incluidos.

### CAPÍTULO III CUANTÍAS Y ESTÁNDARES

**Artículo 77.**– Límites a la edificabilidad urbanística.

1.– En aquellas áreas de suelo urbano no consolidado cuya ejecución se realice mediante actuaciones integradas con uso predominantemente residencial, la edificabilidad física máxima sobre rasante destinada a usos distintos de los de las dotaciones públicas no podrá superar la que resulte de la aplicación del índice de 2,3 metros cuadrados de techo por metro cuadrado de suelo a la superficie del área, sin computar al efecto el suelo destinado a sistemas generales.

2.– Baina, partzelen, morfologiaren eta eraikin-moten ezaugarriak zaindu beharrez, baliteke hiri-berrikuntzako lan batzuetan, nahiko arrazoiz, ezinezkoa izatea gehienezko hirigintza-eraikigarritasun hori betetzea. Halakoetan, eta salbuespen modura betiere, hirigintza-eraikigarritasuna handitzeko aukera ere badago, baina, aurretiaz, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen aldeko txostena eta Jaur-laritzaren Kontseiluaren baimena beharko dira.

3.– Erabilera nagusia bizitegirakoa izango duten lurzoru urbanizagarriko sektoreetako bakoitzean, lurzoru metro koadro bakoitzeko 1,30 metro koadroko sabai-indizea aplikatu sektorearen azaleran –sistema orokorretarako lurzoru zenbatu gabe–, eta horren emaitza izango da sestra gaineko gehienezko eraikigarritasun fisikoa zuzkidura publikoetz bestelako erabileretarako. Indize hori 1,10 izango da, baldin eta 7.000 biztanle edo gutxiago dituzten udalerrian badira eta, horrez gainera, Bilbo, Donostia eta Gasteizko udalerrak barruan dituzten area funtzionaletan sartuta ez badaude –Lurralde Antolamendurako Norabideetan daude definituta area funtzionalak–.

4.– Era berean, jarduketa integratuen bidez egikaritzen den hiri-lurzoru finkatugabeko area bakoitzean eta batez ere bizitegiarako erabili behar den lurzoru urbanizagarriko sektoreetako bakoitzean, lurzoru metro koadro bakoitzeko 0,40 metro koadroko sabai-indizea aplikatu sektorearen azaleran –sistema orokorretarako lurzoru zenbatu gabe–, eta horren emaitza izango da sestra gaineko gutxieneko eraikigarritasun fisikoa zuzkidura publikoetz bestelako erabileretarako. Alabaina, hirigintza-garapena egin beharreko lurzoruek % 15eko edo gehiagoko malda badute, lurzoru metro koadro bakoitzeko 0,30 metro koadroko sabai-indizea erabiliko da. Lege honen arabera etxebizitza babestuetarako lurzoru gorde beharrik ez duten udalerrietan, lurzoru metro koadro bakoitzeko 0,25 metro koadroko sabai-indizea aplikatu, eta horren emaitza izango da gutxieneko eraikigarritasun fisikoa.

5.– Batez ere industrietarako eta hirugarren arlorako erabili behar diren hiri-lurzoru finkatugabeko areetan eta lurzoru urbanizagarriko sektoreetan, area edo sektorearen azalera guztiaren % 30 bete behar dute, gutxienez, eraikinek.

6.– Salbuespen modura, eta udalerriko hirigintzaren baldintzek hala eskatzen dutenean, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak aldeko irizpena ematen badu, Jaur-laritzaren Kontseiluak baimena eman dezake artikuluko 3. paragrafoan zehazturiko gehienezko hirigintza-eraikigarritasuna gehienez ere % 10 handitzeko, edo artikuluko 4. paragrafoan zehazturiko gutxieneko hirigintza-eraikigarritasuna gehienez ere % 20 txikitzeko.

2.– Cuando en operaciones de reforma y renovación urbana el respeto de las características parcelarias y morfológicas y de los tipos edificatorios no permita razonablemente el cumplimiento de la edificabilidad urbanística máxima anteriormente indicada, se podrán prever excepcionalmente edificabilidades urbanísticas superiores, previo informe favorable de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco y autorización del Consejo de Gobierno.

3.– En cada uno de los sectores de suelo urbanizable con uso predominante residencial, la edificabilidad física máxima sobre rasante destinada a usos distintos de los de las dotaciones públicas no podrá superar la que resulte de la aplicación del índice de 1,30 metros cuadrados de techo por metro cuadrado de suelo a la superficie del sector, sin computar al efecto el suelo destinado a sistemas generales. Este índice quedará fijado en 1,10 en aquellos municipios de población de población igual o inferior a 7.000 habitantes y que no se encuentren incluidos en las áreas funcionales, definidas por las Directrices de Ordenación del Territorio, que comprenden los municipios de Bilbao, Donostia-San Sebastián y Vitoria-Gasteiz.

4.– Así mismo, en cada área de suelo urbano no consolidado, cuya ejecución se realice mediante actuaciones integradas, y en cada uno de los sectores de suelo urbanizable con uso predominante residencial, la edificabilidad física mínima sobre rasante destinada a usos distintos de los de las dotaciones públicas no podrá ser inferior con carácter general a la que resulte de la aplicación del índice de 0,4 metros cuadrados de techo por metro cuadrado de suelo a la superficie del área o del sector, sin computar al efecto el suelo destinado a sistemas generales. No obstante, en supuestos en los que los desarrollos urbanísticos tengan por objeto superficies de suelo con una pendiente media igual o superior al 15%, este índice quedará fijado en 0,3 metros cuadrados de techo por metro cuadrado de suelo. En los municipios no obligados a realizar reserva de suelo para vivienda protegida, conforme a esta ley, la edificabilidad física mínima no será inferior a la resultante de la aplicación del índice de 0,25 metros cuadrados de techo por cada metro cuadrado de suelo.

5.– En el caso de áreas de suelo urbano no consolidado y de sectores de suelo urbanizable con uso predominante industrial o terciario, la edificación habrá de ocupar al menos un 30% de la superficie total del área o sector.

6.– Con carácter excepcional, y cuando las circunstancias urbanísticas del municipio así lo exijan, el Consejo de Gobierno, previo dictamen favorable de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, podrá autorizar el incremento de la edificabilidad urbanística máxima prevista en el apartado 3 de este artículo en una cuantía máxima del 10%, o la disminución de la edificabilidad urbanística mínima prevista en el apartado 4 de este artículo en una cuantía máxima de un 20%.

**78. artikulua.**— Sistema orokorren sareko zuzkidura publikoetarako erabili behar diren lursailak eta eskubideak gordetzeko estandarrak.

1.— Hiria antolatzeke plan orokorren egiturazko antolamenduan, lurzorua azalera jakin bat espazio libreen sareko zuzkidura publikoetarako utzi beharko da, berdeguneetarako eta hiri-parkeetarako erabiltzeko. Azalera horrek plangintzan aurreikusitakoa izan beharko du gutxienez, hau da, lehenagotik dagoen azalera sartuta, 5 metro koadro biztanleko. Gordetako azalera hori ezin izango da zenbatu hurrengo artikuluko 2. paragrafoa a) idatz-zatiko ondorioetarako.

2.— Aurreko paragrafoan xedaturikoaren ondorioetarako, eta ez beste ezertarako, baliokidetzatza hau ezartzen da: hiri-lurzoruan eta lurzoru urbanizagarrian, etxebizitzetarako erabili beharreko azalera eraikian, biztanle bat 25 metro koadroko. Baliokidetzatza hori berrikusi egin daiteke, erregelamendu bidez, familiaren egituraren bilakera eta etxebizitzaren batez besteko ezaugarrien bilakera ikusita.

3.— Babes ofizialeko araubide bati atxikitako etxebizitzak egiteko sailkatutako lursailak dagokienez, hiri antolatzeke plan orokorren egiturazko antolamenduak bizitegi-zuzkidura babesturako gorde ahal izango du lursail horien lurrazal-eskubidea. Nolanahi ere, etxebizitza horien okupazio-erregimena lurrazal-eskubidez edo errentamenduz gauzatu ahal izango da.

**79. artikulua.**— Hiri-lurzoruan eta lurzoru urbanizagarrian tokiko sistemen sareko zuzkidurak eta ekipamenduak jartzeko gorde behar diren lursailen gutxieneko estandarrak.

1.— Erregelamendu bidez egongo da zehazturik zenbat lursail gorde behar diren, hiri-lurzoru finkatugabeen, tokiko sistemen sareko erabilerakako zuzkidura publikoetarako.

2.— Erabilera nagusoa bizitegirakoa duten sektoreei dagokienez, lurzoru urbanizagarriko sektore horien antolamendu xehatuan lurzoru-erreserba hauek gorde beharko dira, gutxienez:

a) Tokian tokiko sistemen sareko zuzkidura publikoetarako: zuzkidura publikoek bestelako erabileretarako sestraren gainean 25 metro koadroko sabai-azalera dagoen bakoitzeko, 10 metro koadro lurzoru. Erreserba horretan, sektorearen azalera guztiaren % 15, gutxienez, berdeguneetarako eta espazio libreetarako erabili beharko da; azalera horretan, gainera, ez dira kontatuko sektorean sartutako sistema orokorrak.

b) Ibilgailuen aparkalekuetarako: titularitate pribatuko partzeletan, zuzkidura publikoek bestelako erabileretarako sestraren gainean 25 metro koadroko sabai-azalera dagoen bakoitzeko, 0,35 aparkaleku; eta zuzkidura publikoko erabileretarako, berriz, konputatze berdina eginda, sestraren gainean 25 metro koadroko sabai-azalera dagoen bakoitzeko, 0,15 aparkaleku. Zuzkidura publikoetako aparkalekuen ezaugarriak erregelamendu bidez zehaztuko dira.

**Artículo 78.**— Estándares mínimos para reserva de terrenos y derechos destinados a dotaciones públicas de la red de sistemas generales.

1.— La ordenación estructural de los planes generales de ordenación urbana deberá destinar a dotaciones públicas de la red de espacios libres para el uso de zonas verdes y parques urbanos una superficie de suelo no inferior a cinco metros cuadrados por habitante previsto en el planeamiento, incluida la superficie ya existente. Esta reserva no computará a los efectos de la letra a) del apartado 2 del artículo siguiente.

2.— A los solos efectos de lo dispuesto en el párrafo anterior, se establece la correlación de un habitante por 25 metros cuadrados de superficie construida destinada al uso de vivienda en suelo urbano y urbanizable. Esta equivalencia podrá ser revisada mediante normativa reglamentaria en función de la evolución de la estructura familiar y de las características medias de las viviendas.

3.— La ordenación estructural de los planes generales de ordenación urbana podrá reservar con destino a dotación residencial protegida la propiedad superficial de los terrenos calificados para viviendas sometidas a algún régimen de protección oficial, sin perjuicio de que el régimen de ocupación de dichas viviendas se pueda materializar bien en derecho de superficie bien en arrendamiento.

**Artículo 79.**— Estándares mínimos para reserva de terrenos destinados a dotaciones y equipamientos de la red de sistemas locales en suelo urbano y urbanizable.

1.— Reglamentariamente se definirán las reservas mínimas de terrenos para las dotaciones públicas por usos de la red de sistemas locales en suelo urbano no consolidado.

2.— La ordenación pormenorizada de sectores de suelo urbanizable cuyo uso predominante sea el residencial deberá establecer, con el carácter de mínimas, las reservas de terrenos siguientes:

a) Para dotaciones públicas de la red de sistemas locales: 10 metros cuadrados de suelo por cada 25 metros cuadrados de superficie de techo sobre rasante destinada a usos distintos de los de las dotaciones públicas. La superficie de la reserva destinada a zonas verdes y espacios libres no será, en ningún caso, inferior al 15% de la superficie total del sector, sin computar en dicha superficie los sistemas generales incluidos en el sector.

b) Para aparcamiento de vehículos: 0,35 plazas por cada 25 metros cuadrados de superficie de techo sobre rasante destinada a usos distintos de los de las dotaciones públicas en parcelas de titularidad privada, y 0,15 plazas por cada 25 metros cuadrados de superficie de techo, computado de igual modo, en terrenos destinados a dotaciones públicas. Con carácter reglamentario se establecerán las características de dichos aparcamientos de las dotaciones públicas.

c) Tokian tokiko sistemen sareko ekipamendu pribatuetarako: zuzkidura publikoetz bestelako erabilere-tarako sestraren gainean 25 metro koadroko sabai-azalera dagoen bakoitzeko, 1 metro koadro lurzoru.

d) Landareetarako: bizitegiatarako lurzoruan, etxe-bizitza bakoitzeko, zuhaitz bat landatu beharko da; eta orobat industrietarako edo hirugarren sektorerako lurzoruan ere, hirigintza-eraikigarritasuna gehitzen den eremuaren barruan, eraikitako 100 metro koadroko gehikuntza bakoitzeko. Hiri-lurzorurako ere berdin-verdin balio du landareetarako estandar horrek.

3.- Erabilera nagusia industriadarako edo hirugarren sektorerako duten lurzoru urbanizagarriko sektoreei dagokienez, sektore horien antolamendu xehatua gutxieneko lursail batzuk gorde behar dira tokiko sistemen sareko zuzkidura publikoetarako. Sektorearen azalera guztiaren % 12 izango da gutxieneko hori, eta erreserba horren bi heren berdeguneetarako erabili beharko da.

4.- Tokiko sistemen sareko zuzkidura publikoetarako eta ekipamendu pribatuetarako gorde beharreko erreserbei dagokienez –aurreko bi paragrafoetan aipatu dira–, erregelamendu bidez zehaztuko da erabilera zehatzetarako nola banatuko diren.

5.- Artikulu honetan zehaztutako estandarrei dagokienez, debekatuta dago salbuespenik, gutxitzerik edo beste sektore edo esparru batera transferentziarik egiterik.

**80. artikulua.**– Gutxieneko estandarrak eta kopuruak babes publikoko araubide bati atxikitako etxebizitzetzi dagokienez.

1.- Udalaren hirigintza-plangintzak erabakiko du babes publikoko araubideren bati atxikitako etxebizitzak egiteko kalifikatutako lursailen erreserba. Erreserba horrek, gutxienez, ondorengo paragrafoetan zehazturik datozen estandarrak eta zenbatekoak jasoko ditu.

2.- Erabilera nagusia bizitegirakoa duen eta jarduketan integratuen bitartez egikaritzea aurreikusten den hiri-lurzoru finkatuko areetan, plan orokorren eta, halakorik baldin badago, plan berezien hirigintza-antolamenduak lursailen zati bat kalifikatu beharko du etxebizitzak babes publikoko araubideren bati atxikitzea eraikitzeke. Gutxienez, area bakoitzean, lehenago gauzatutakoaren aldean, bizitegirako ezartzen den hirigintza-eraikigarritasunaren gehikuntzaren % 40 gauzatzeko bezainbesteak izango dira lursail horiek. Bizitegirako hirigintza-eraikigarritasuneko ehuneko horretatik, % 20, gutxienez, araubide orokorreko eta bereziko babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeke izango da, eta % 40era arteko gainerakoa, araubide tasatutako babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeke. Araubide tasatutako babes ofizialeko etxebizitzetarako onartutako hirigintza-eraikigarritasuna udal-etxebizitza tasatuekin ordezkatu ahal izango da, zortzigarren xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraituz.

c) Para equipamientos privados de la red de sistemas locales: un metro cuadrado de superficie de techo por cada 25 metros cuadrados de superficie de techo sobre rasante destinado a usos distintos de los de las dotaciones públicas.

a) La administración pública o entidad dependiente de la misma titular de la parcela podrá, en el acto de constitución del derecho de superficie, fijar las condiciones de transmisión de dicho derecho y de cesión o arrendamiento de los elementos del inmueble que se construya, así como las que limiten las sucesivas transmisiones de la propiedad superficiaria de las viviendas y locales construidos, estableciendo, en su caso, respecto a los mismos un derecho de adquisición preferente a favor de la administración o entidad y las condiciones económicas o de otro tipo de dicha adquisición. Todo ello se entenderá sin perjuicio de la aplicación preferente de lo establecido en la respectiva normativa protectora.

b) La constitución del derecho deberá ser formalizada en escritura pública y, como requisito constitutivo de su eficacia, inscribirse en el Registro de la Propiedad.

c) Cuando se constituya a título oneroso, la contraprestación del superficiario podrá consistir en el pago de una suma alzada o de un canon periódico, o en la adjudicación o arrendamiento de viviendas o locales, o en varias de estas modalidades a la vez, sin perjuicio de la reversión total de lo edificado al finalizar el plazo pactado al constituir el derecho de superficie.

**Artículo 129.**– Extinción del derecho de superficie.

1.– El derecho de superficie se extinguirá por haber transcurrido el plazo, que no podrá exceder de 75 años, o el plazo que establezca como máximo la legislación básica, sin perjuicio de su carácter reconstituible. Una vez extinguido, el propietario del suelo hará suya la propiedad de lo edificado, sin que deba satisfacer indemnización alguna cualquiera que sea el título por el que se hubiera constituido el derecho. La extinción del derecho de superficie provocará la de toda clase de derechos reales o personales impuestos por el superficiario.

2.– El derecho de superficie se extinguirá también si no se edifica en el plazo previsto.

3.– Si por cualquier otra causa distinta de las previstas en los apartados precedentes se reunieran en la misma persona los derechos de propiedad del suelo y de superficie, las cargas que recaigan sobre uno y otro derecho continuarán gravándolos separadamente.

**130. artikulua.**– Bizitegi-zuzkidura babestuaren gaineko lurrazal-eskubidearen araubidea.

1.– Egiturazko antolamenduak hala ezartzen duenean, babes ofizialeko araubideren bati atxikitako etxebizitzetarako kalifikatutako lurzoruen lurrazal-eskubidea hartuko da bizitegi-zuzkidura babestuzat.

2.– Kasu horretan, lurrazal-eskubidea udalari laga beharko zaio nahitaez, eta eraikuntzak lurrazal-eskubidearen araubidekoak izan beharko dute, eta dagokion araudian zehaztutako prezioei lotuta egon.

## V. TITULUA

### HIRIGINTZAKO ANTOLAMENDUA EGIKARITZEA

#### I. KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

##### LEHENENGO ATALA ADMINISTRAZIO-EGIKARITZEA ETA -JARDUERA

**131. artikulua.**– Egikaritzeko administrazio-jardueraren edukia eta garapena.

1.– Hirigintzako antolamendua egikaritzeak honako zeregin hauek hartzen ditu:

a) Urbanizatzeko jarduketa-programetan jasotako garapen-baldintzak gauzatzea eta programok benetan betetzen direla bermatzea.

b) Antolamenduaren ondoriozko onurak eta kargak ekitatez banatzea.

c) Egikaritzearen denbora antolatzea eta jarduketan hurrenkera finkatzea, baldin eta zehaztapen horiek plangintzan ez badaude edo aldatu behar badira.

d) Eratutako orubeak urbanizatzea eta eraikitzea.

e) Urbanizazio-obrak eta, hala badagokio, eraikuntza kontserbatzea.

f) Doan lagatzea bideak, zuzkidurazko lurrak eta nahitaez eta doan eman beharreko beste batzuk, bai eta administrazio jardulari dagokion hirigintza-eraikigarritasuna kokatzea ere.

2.– Herri-administrazioek, zeinek bere eskumenen eremuan, hirigintza-antolamendurako planak egikaritzeko dituzte, lege honetan ezarritakoaren arabera.

**132. artikulua.**– Egikaritze-jarduera pribatua zuzentzea, ikuskatzea eta kontrolatzea.

Administrazio publikoek, zeinek bere eskumenen eremuan, plangintzaren egikaritzean eragile pribatuek duten parte-hartzea eta lankidetzazuzendu, ikuskatu

**Artículo 130.**– Régimen del derecho de superficie sobre la dotación residencial protegida.

1.– La dotación residencial protegida se corresponde con el derecho superficiante de los suelos calificados con destino a viviendas sometidas a algún régimen de protección pública en el caso de que la ordenación estructural así lo determine.

2.– En este supuesto, el derecho superficiante será de cesión obligatoria y gratuita a favor del ayuntamiento, y la edificación se materializará obligatoriamente en el régimen propio del derecho de superficie, estando sujeta a los precios determinados por la correspondiente normativa reguladora.

## TÍTULO V

### EJECUCIÓN DE LA ORDENACIÓN URBANÍSTICA

#### CAPÍTULO I DISPOSICIONES GENERALES

##### SECCIÓN PRIMERA EJECUCIÓN Y ACTIVIDAD ADMINISTRATIVA

**Artículo 131.**– Contenido y desarrollo de la actividad administrativa de ejecución.

1.– La ejecución de la ordenación urbanística comprende:

a) La realización de las condiciones de desarrollo recogidas en los pertinentes programas de actuación urbanizadora, así como la garantía del cumplimiento efectivo de los mismos.

b) La equidistribución de beneficios y cargas derivadas de la ordenación.

c) La organización temporal de la ejecución y la fijación del orden de las actuaciones, cuando dichas determinaciones no se contengan ya en el planeamiento o proceda modificarlas.

d) La urbanización y la edificación de los solares resultantes.

e) La conservación de las obras de urbanización y, en su caso, de la edificación.

f) La cesión gratuita de viales, terrenos dotacionales y otros de cesión obligatoria y gratuita, así como localizar la edificabilidad urbanística correspondiente a la administración actuante.

2.– Las administraciones públicas ejecutarán, en sus respectivas esferas de competencias, los correspondientes planes de ordenación urbanística, con arreglo a esta ley.

**Artículo 132.**– Dirección, inspección y control de la actividad privada de ejecución.

Las administraciones públicas, en sus respectivas esferas de competencia, dirigirán, inspeccionarán y controlarán la participación y colaboración privada en la

eta kontrolatuko dute, hain zuzen ere plangintzaren egikaritzean honako hauek beteko direla exijitzeko eta bermatzeko: jarduketarako plan eta programak, plan eta programa horiek egikaritzeko onartutako tresna eta erabaki enparauak, eta obren kasuan kasuko proiektu teknikoak.

**133. artikulua.**— Egikaritzeko epeak.

1.— Plan orokorrek beren garapenerako sekuentzia logikoa zehaztuko dute. Horretarako, baldintza objektibo batzuk finkatuko dituzte, horien bitartez plana garatzeko lehenetsun oinarriko hurrenkera definitu ahal izateko. Plan horiek, edo planok garatuko dituztenek, gehienezko epeak finka ditzakete orubeak erakitze eta lehendik dauden eraikinak birgaitzeko.

2.— Eraikuntzak egin edo birgaitzeko gehienezko epeak ez betetzeak, hurrenez hurren, eraikuntza-programak aurkeztu edo izapidetzeko aukera, edo egikaritze-aginguak emateko aukera ekarriko du.

BIGARREN ATALA  
EGIKARITZEKO ADMINISTRAZIO-JARDUKETA  
KUDEATZEKO ERAK

**134. artikulua.**— Kudeaketa propioa eta lankidetzakoa.

1.— Herri-administrazioen araubide juridikoari eta kontratuei buruzko legeriak eta toki-araubideari buruzko legeriak onartutako era guztiak erabil ditzakete herri-administrazioek, bere eskumeneko egikaritze-jarduketaren kudeaketa propioarako edo kudeaketa zuzenerako.

2.— Herri-administrazioek, egikaritze-jarduketa lankidetzan garatzeko, eta aurreko paragrafoan aipatutako legeria, kontuan izanik hirigintza-partzuergoak eratu ditzakete, aldean adostasunez; kapital pribatuaren partaidetzarik baldin bada, herri-administrazioen partaidetzak gehiengoa izango du beti partzuergootan. Era berean, eskumen propioak eskuordetu ditzakete eta beste administrazio batzuen esku utzi dezakete hirigintza-kudeaketa edo hirigintza-obren exekuzioa, eta orobat administrazioen menpeko beste organismo eta erakunde publiko batzuen esku ere.

3.— Herri-administrazioek, haien menpeko edo haiei atxikitako erakundeek eta haiek sortutako partzuergoek lankidetzak-hitzarmenak egin ahal izango dituzte, herri-administrazioen araubide juridikoari eta toki-araubideari buruzko legerian onetsitako eran.

HIRUGARREN ATALA  
HIRIGINTZA EGIKARITZEKO AURREKONTUAK

**135. artikulua.**— Egikaritzeko oinarriak.

Egikaritzeak, jarduketa-eremuak barne hartutako lursail guztiei dagokienez, alde aurretik zenbait ekin-tza onartzea eskatzen du, legitimatutako subjektua bata zein bestea izanda ere. Hauek dira ekintzok:

**2. Liburukia: Araudia**

ejecución del planeamiento, para exigir y asegurar que se produce de conformidad con los planes y los programas de actuación y los demás instrumentos y acuerdos aprobados para su ejecución, así como, en su caso, con los correspondientes proyectos técnicos de obras.

**Artículo 133.**— Organización temporal de la ejecución.

1.— Los planes generales determinarán la secuencia lógica de su desarrollo mediante la fijación de las condiciones objetivas que definan un orden básico de prioridades para su ejecución. Asimismo dichos planes, o los que los desarrollen, podrán fijar plazos máximos para la edificación de los solares y para la rehabilitación de la edificación existente.

2.— El incumplimiento de los plazos máximos para edificar o rehabilitar las edificaciones determinará la posibilidad de formular y tramitar programas de edificación o dictar órdenes de ejecución, respectivamente.

SECCIÓN SEGUNDA  
FORMAS DE GESTIÓN DE LA ACTIVIDAD  
ADMINISTRATIVA DE EJECUCIÓN

**Artículo 134.**— Gestión propia y cooperativa.

1.— Las administraciones públicas podrán utilizar, para la gestión propia o directa de la actividad de ejecución de su propia competencia, todas las formas o modalidades admitidas por la legislación de régimen jurídico y de contratación de las administraciones públicas y de régimen local.

2.— Para el desarrollo cooperativo de la actividad de ejecución, y conforme a la misma legislación a que se refiere el apartado anterior, las administraciones públicas podrán, además, constituir, por mutuo acuerdo, consorcios urbanísticos, en los que, en supuesto de que haya participación de capital privado, la participación de la administración pública será siempre mayoritaria. Asimismo, podrán delegar competencias propias, o encomendar la gestión urbanística o la ejecución de las obras de urbanización en otras administraciones, así como en organismos y entidades públicas de ellas dependientes.

3.— Las administraciones públicas y sus organismos dependientes o adscritos y los consorcios creados por aquéllas podrán suscribir convenios, con fines de colaboración, en los términos autorizados por la legislación de régimen jurídico de las administraciones públicas y de régimen local.

SECCIÓN TERCERA  
PRESUPUESTOS DE LA EJECUCIÓN URBANÍSTICA

**Artículo 135.**— Presupuestos de la ejecución.

El desarrollo de la actividad de ejecución, cualquiera que sea el sujeto legitimado, requerirá la aprobación, con carácter previo y respecto a la totalidad de los terrenos incluidos en el ámbito de la actuación, de:

a) Egokia den hirigintza-plangintza egitea, kasuan kasuko lurzoru-motan antolamendu xehatua ezartzeko.

b) Urbanizatzeko jarduketa-programa behin betiko onartzea. Salbuetsita geratuko dira jarduketa isolatuak eta zuzkidurea-jarduketak, sistema orokorren eta tokiko sistemen sareko zuzkidura publikoen egikaritzea, eta administrazio publikoek sustatutako nahitaezko birpartzelazio-prozedura berezia –lege honetako 49. artikuluan aurreikusita dago–.

c) Hirigintza-proiektua, hirigintzaren osagarri diren obren proiektua edo zuzkidura publikoen obren proiektua egitea, kasuak kasu eta 194. eta 195. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

d) Birpartzelatze-proiektua egitea, kasu guztietan. Salbuetsita geratuko dira proiektu-beharrizanik ez duten jarduketa isolatuak eta zuzkidura-jarduketak, jabe bakarreko jarduketa integratuak –desjabetze-sistema barne– eta sistema orokorren eta tokiko sistemen sareko zuzkidura publikoak egikaritzeko jarduketak.

e) Jarduketa isolatuei dagokienez, eraikitze-programa egitea, eraikuntza egiteko ezarritako gehieneko epea amaitu ondoren.

#### LAUGARREN ATALA JARDUKETA-ARLOAK ETA -MOTAK

##### 136. artikulua.– Jarduketa isolatuak.

Lege honetan aurreikusitako ondorioetarako, kasu batzuetan egindako eraikitze-jarduketak joko dira jarduketa isolatutzat, hain zuzen ere kasu hauetakoak:

a) Lehendik dauden orubeak, baldin eta horiek urbanizatzea hirigintzako antolamenduak egokitzen eta nahikotzat jo badu eraikitzeke. Alabaina, hiru-lurzoru finkatuaren kategoriaren barruan orubeak duten kontsiderazioa kontuan izan behar bada ere, proindibisio-araubidea duten orubeak birpartzelatu egin ahal izango dira. Horretarako, gutxienez jabetza-kuotaren % 50 ordezkatzen duen edozein jabeakidek egin beharko du eskaera, eta bipartzelatzeak ez du gaindituko orubearen eremua.

b) Partzela eraikigarriak, baldin eta horiek orube bihurtzeak, eraiki aurretik edo aldi berean, 195. artikuluan ezarritakoaren araberrako urbanizatze-obra osagarriak egitea baino ez badu eskatzen.

##### 137. artikulua.– Zuzkidura-jarduketak.

Lege honen ondorioetarako, honako hauek hartuko dira zuzkidura-jarduketatzat: hirigintza-eraikigarritasuna handitzeagatik, hiri-lurzoru finkatugabearen zuzkidura-karga gauzatzera zuzendutako jarduketak.

##### 138. artikulua.– Jarduketa integratuak.

1.– Lege honen ondorioetarako, honako hauek hartuko dira jarduketa integratutzat: urbanizazio bidez finkatu gabeko hiru-lurzoruaren barruan eta lurzoru ur-

a) El planeamiento urbanístico idóneo para establecer la ordenación pormenorizada en la clase de suelo de que se trate.

b) El programa de actuación urbanizadora, aprobado con carácter definitivo, con excepción de las actuaciones aisladas o de dotación y las de ejecución de las dotaciones públicas integrantes de la red de sistemas generales y locales, y del procedimiento especial de reparcelación forzosa promovida por las administraciones públicas previsto en el artículo 49 de esta ley.

c) El proyecto de urbanización, el proyecto de obras complementarias a la urbanización o el proyecto de obras de dotaciones públicas, según los casos y conforme a lo dispuesto en los artículos 194 y 195.

d) El proyecto de reparcelación en todos los supuestos, salvo en el caso de las actuaciones aisladas y las actuaciones de dotación que no precisen de ella, las actuaciones integradas de propietario único, incluido el sistema de expropiación, y las actuaciones de ejecución de dotaciones públicas de la red de sistemas generales y locales.

e) El programa de edificación en el caso de actuaciones aisladas una vez transcurrido el plazo máximo establecido para realizar la edificación.

#### SECCIÓN CUARTA ESFERAS Y TIPOS DE ACTUACIÓN

##### Artículo 136.– Actuaciones aisladas.

A los efectos previstos en la presente ley, se considerarán como actuaciones aisladas las edificatorias realizadas en los siguientes supuestos:

a) Solares ya existentes cuya urbanización haya sido asumida por la ordenación urbanística como adecuada y suficiente para la edificación. No obstante, sin perjuicio de su consideración dentro de la categoría de suelo urbano consolidado, los solares en régimen de proindivisión podrán ser objeto de un proceso reparcelatorio, cuyo ámbito no exceda del propio del solar, a instancia de cualquier copropietario que represente, al menos, el 50% de la cuota de propiedad.

b) Parcelas susceptibles de edificación que sólo requieran, para la adquisición de la condición de solar, la realización, previa o simultáneamente a la edificación, de las obras de urbanización complementarias conforme a lo establecido en el artículo 195.

##### Artículo 137.– Actuaciones de dotación.

A los efectos de esta ley, se consideran actuaciones de dotación las dirigidas al levantamiento de la carga dotacional en suelo urbano no consolidado por incremento de la edificabilidad urbanística.

##### Artículo 138.– Actuaciones integradas.

1.– A los efectos de esta ley, se consideran actuaciones integradas las que se realizan, en suelo urbano no consolidado por la urbanización y en suelo urbanizable

banizagarriaren barruan, egikaritze isolatuek baino urbanizazio-maila handiagoa behar duten lursailetan egiten direnak, urbanizatzeko jarduketa-programa bakar baten arabera orube bat edo batzuk sortzeko. Jarduketa horiek egikaritze-unitate oso baten edo batzuen bidez gauzatu beharko dira egikaritze publikoz edo pribatuz, baita egikaritze-jarduketak antolamendu-eremu ezberdinei dagozkien kasuan ere.

2.– Sistema orokorren sareetako zuzkidura publikoetarako beharrezkoak diren lurzorua eta eskubideak jarduketa integratuetan sartu ahal izango dira edo jarduketa horiei atxiki, doan lortzeko eta, hala badagokio, zuzkidura horien egikaritzea finantzatzeko.

3.– Urbanizazio bidez finkatu gabeko hiri-lurzoruan, jarduketaren funtzionaltasunerako aurreikusi gabeko tokiko sistemen sareko beste zuzkidura batzuk ere sartu edo atxiki ahal izango dira egikaritze-unitatean, aurretiaz arrazoiak emanda, betiere zuzkidurok egikaritzeko beharrezkoa den lurzorua eta eskubideak doan lortze aldera.

**139. artikulua.**– Sistema orokoren eta tokiko sistemen sareetako zuzkidura publikoak egikaritzeko jarduketak.

Lege honen ondorioetarako, sistema orokorren eta tokiko sistemen sareko zuzkidura publikoak egikaritzeko jarduketatzat honako hauek hartuko dira: zuzenean egikaritu daitezkeen eta ukitutako lurzorua eta eskubideak desjabetze bidez lortu beharra daukaten jarduketak, lurzoru, ondasun eta eskubideok ez egotearren aurreko artikuluaaren arabera jarduketa integratuetan sartuta edo haiei atxikita.

**140. artikulua.**– Egikaritzearen jarduketa-arloak.

1.– Eraikitze jarduketa isolatuak partzela edo orubeen jabe diren subjektu pribatu edo publikoen jarduketaren arlokoak dira, eta jarduketon ardura, bestalde, subjektu horiek, horien baimena dutenek, edo horiek nahiko ahalmen edo eskubide ematen dizkietenek edukiko dute. Eraikitze jarduketa garatu ahal izateko, eskumena duen herri-administrazioak esku hartu behar du, lege honetan xedatutako eran.

2.– Jarduketa integratuak jarduketa publikoari dagozkio; beraz, administrazio publikoek dute, beren eskumenen arabera, jarduketa integratuen ardura. Jarduketok egikaritze publikoa edo pribatua izan dezakete.

3.– Sistema orokorren eta tokiko sistemen sarea hirigintzako antolamenduan dago zehaztuta, eta jarduketa publikoari dagokio, hain zuzen, sare horretako zuzkidura publikoak obra publiko arrunten bidez egikaritzea. Egikaritze horretan, inola ere, kasu bakoitzean egokitzat jotzen diren urbanizatzeko eta eraikitze-obra sartuko dira.

**141. artikulua.**– Jarduketa integratuak araubide publiko edo pribatuz egikaritzea.

1.– Jarduketa integratuen egikaritze-araubidea, betiere, urbanizatzeko jarduketa-programa onartzen de-

sectorizado, en los terrenos que precisan de un grado de urbanización superior al de las actuaciones aisladas, para dar lugar a uno o varios solares conforme a un único programa de actuación urbanizadora y que habrán de acometerse a través de una o varias unidades de ejecución completas en régimen público o privado, incluso cuando dichas unidades de ejecución correspondieran a ámbitos de ordenación diferentes.

2.– La obtención gratuita del suelo y los derechos necesarios para las dotaciones públicas de las redes de sistemas generales y, en su caso, la financiación de su ejecución se podrán realizar mediante su inclusión o adscripción a actuaciones integradas.

3.– En el suelo urbano no consolidado por la urbanización también podrán incluirse en o adscribirse a la unidad de ejecución, previa justificación, otras dotaciones públicas de la red de sistemas locales diferentes de las contempladas para la funcionalidad de la propia actuación, para la obtención gratuita del suelo y los derechos necesarios para su ejecución.

**Artículo 139.**– Actuaciones de ejecución de dotaciones públicas de las redes de sistemas generales y locales.

A los efectos de la presente ley, se consideran actuaciones de ejecución de dotaciones públicas de la red de sistemas generales y locales aquellas que pueden ejecutarse directamente y cuyo suelo y derechos afectados se deban obtener por expropiación, por no estar dichos suelos, bienes y derechos incluidos o adscritos a actuaciones integradas con arreglo al artículo anterior.

**Artículo 140.**– Esferas de actuación en la ejecución.

1.– Las actuaciones aisladas edificatorias pertenecen a la esfera de actuación propia de los sujetos, privados o públicos, propietarios de las parcelas o los solares, y su realización corresponde a éstos o a quienes ellos autoricen o transfieran facultades o derechos suficientes al efecto. La actividad de edificación queda sujeta en su desarrollo a la intervención de la administración pública competente en los términos de esta ley.

2.– Las actuaciones integradas pertenecen a la esfera de actuación pública, son responsabilidad de las administraciones públicas según sus respectivas competencias, y pueden desarrollarse en régimen de ejecución pública o privada.

3.– La ejecución de dotaciones públicas de la red de sistemas generales y locales definida en la ordenación urbanística en régimen de obras públicas ordinarias pertenece a la esfera de actuación pública, y comprende las obras de urbanización y edificación adecuadas en cada caso.

**Artículo 141.**– Régimen de ejecución pública o privada de las actuaciones integradas.

1.– El régimen de ejecución de las actuaciones integradas, que deberá determinarse en la aprobación del

nean zehaztu beharko da, eta jarduketa-arlo publikoa eta pribatua mugatuko ditu, honako modu honetan:

a) Araubide publikoz egikaritzean, egikaritze-jardueraren garapena administrazio jardulearen esku utziko da. Araubide horretan, administrazioak egingo ditu urbanizazio-obrak, eragindako lursailak desjabetuta edo desjabetu gabe.

b) Araubide pribatuko egikaritzean, ekimen pribatuak parte hartuko du plangintzaren egikaritzean. Parte-hartze hori administrazio jarduleak zuzendu, ikuskatu eta kontrolatuko du.

2.– Araubide pribatuz egikaritzeari dagokionez, jarduketa integratua izango duten lursailak ez dute orube-izaera hartuko, harik eta, unean uneko zerbitzuz zuzkituta eta zerbitzaturuta egoteaz gain, egikarituta egon eta tokiko administrazioari entregatu arte bai jarduketaren berariazko obrak, bai jarduketaren programazioan hura bere inguruan integratu eta atxikitzeko ezarritako azpiegiturak.

**142. artikulua.**– Euskal Autonomia Erkidegoko eta lurralde historikoetako administrazioen jarduketak.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoaren eta lurralde historikoetako foru-organoen administrazioek, beren esku duten lurzoruan, lurzoru hori plangintza egikaritzuz hirigintza-ikuspegitik eraldatzeko egiten dituzten jarduketek, betiere, hirigintza-antolamendu egokia eduki beharko dute, antolamendu horrekin bat etorri beharko dute eta, egikaritzeko orduan, lege honetan aurreikusitako hirigintza- eta egikaritze-tresnetan oinarritu beharko dute.

2.– Aurreko zenbakian xedatutakoaren ondorioetarako antolamendu-, urbanizazio- eta egikaritze-tresnak aurkeztu, izapidetu eta onartzea beharrezkoa bada, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta lurralde historikoetako foru-organoen kasuen kasuko sailen zereginak izango dira honako hauek:

a) Eragindako udalek hala aginduta, beharrezkotzat jotzen diren tresnak aurkeztu eta izapidetzea. Nolanahi ere, beharrezko erabakiak hartuko dituzte udal horiek beren eskumenen barruan.

b) Salbuespen gisa, interes publikoko arrazoi behar bezala justifikatuengatik eta Jaurlaritza Kontseiluak habilitatu ondoren, beharrezkoak diren tresnak lege honetan ezarritako prozeduraren arabera aurkeztu, izapidetu eta onartzea.

3.– Aurreko 2.b idatz-zatian aurreikusitako bezala habilitatzeko, honako tramite hauek bete beharko dira lehenago:

a) Sail sustatzaileek proposamenarekiko beren oniritzia edo desadostasuna modu formalean jakinarazi beharko diete eragindako udalei, betiere irizpide horren arrazoiak azalduta. Hiru hilabeteeko epea dute, gehienez ere, horretarako.

programa de actuación urbanizadora, concreta la delimitación de las esferas de actuación pública y privada en los siguientes términos:

a) El régimen de ejecución pública supone la reserva del desarrollo de la actividad de ejecución a favor de la administración actuante. En este régimen, las obras de urbanización se llevan a cabo, con o sin expropiación de los terrenos afectados, por la propia administración.

b) El régimen de ejecución privada supone la participación de la iniciativa privada en la ejecución del planeamiento, bajo la dirección, inspección y control de la administración actuante.

2.– En el régimen de ejecución privada, los terrenos objeto de una actuación integrada no adquieren la condición de solares hasta que, además de estar efectivamente dotados y servidos por los correspondientes servicios, estén ejecutadas y entregadas a la administración local las obras de urbanización propias de la actuación y las infraestructuras de integración y conexión de ésta con su entorno establecidas en la programación de la misma.

**Artículo 142.**– Actuaciones de las administraciones de la Comunidad Autónoma y de los territorios históricos.

1.– Las actuaciones que en suelo a su disposición, y para su transformación urbanística mediante la ejecución del planeamiento, lleven a cabo las administraciones de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de los órganos forales de sus territorios históricos deberán contar con la ordenación urbanística adecuada, ser conformes con ella y ejecutarse sobre la base de los pertinentes instrumentos de urbanización y ejecución previstos en esta ley.

2.– Cuando, a los efectos de lo dispuesto en el número anterior, fuera precisa la formulación, tramitación y aprobación de instrumentos de ordenación, urbanización y ejecución, los departamentos correspondientes de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de los órganos forales de sus territorios históricos podrán:

a) Por encomienda de los ayuntamientos afectados, formular y tramitar los instrumentos precisos, sin perjuicio de los acuerdos que en el marco de sus competencias deban adoptar aquellos.

b) Excepcionalmente, cuando razones de interés público debidamente motivadas y justificadas así lo requieran, y por habilitación del Consejo de Gobierno, formular, tramitar y aprobar los instrumentos necesarios conforme al procedimiento establecido por esta ley.

3.– La habilitación prevista en el apartado 2.b anterior requerirá el cumplimiento de los siguientes trámites previos:

a) Comunicación formal de los departamentos promotores a los ayuntamientos afectados, que en plazo máximo de tres meses habrán de manifestar su conformidad o disconformidad con la propuesta, motivando, en todo caso, su criterio.

b) Adostasunik ez badago edo epe horretan erantzunik ematen ez bada, negoziazio- eta kontsulta-epe bat irekiko da, beste bi hilabetekoa, akordioa lortzeko. Akordiorik ez badago, habilitazioa eskatuko zaio Jaur-larritza Kontseiluari lurralde-antolamenduaren ardura duen sailaren bidez. Horretarako, Lurralde Antolamendurako Batzordeak aldeko txostena eman beharko du lehenago.

BOSGARREN ATALA  
EGIKARITZE-UNITATEAK

**143. artikulua.**– Egikaritze-unitateak.

1.– Egikaritze-unitateek hirigintza-jarduketa baten espazioa osatzen dute. Unitateotan, beharrezko zuzkidura-lurzoruak eta jarduketaren ondorioz orube bihurtuko diren partzela eraikigarriak sartu beharko dira.

2.– Urbanizatzeko jarduketa-programak egikaritze-unitate oso baten edo batzuen bidez egikaritutako dira.

**144. artikulua.**– Egikaritze-unitateak mugatzeko baldintzak.

1.– Egikaritze-unitateen mugaketa, zehazki, unitatearen azalera osoa laga, era ekitatiboan banatu eta urbanizatzeko eginbeharrak batera bete ahal izateko moduan egin beharko da. Horretarako, baldintza hauek bete beharko ditu mugaketak:

a) Beren neurriengatik eta antolamenduaren eta urbanizazioaren ezaugarriengatik, lege honen, plangintza-aren eta urbanizatzeko jarduketa-programen ondorio diren lurzoru-lagapenak bereganatzeko gai izan behar dute.

b) Urbanizatzekak dakartzan onurak eta kargak modu ekitatiboan banatu ahal izatea bermatu behar dute.

c) Jarduketaren autonomia ikuspegi teknikitik eta ekonomikotik justifikatzeko nahikoa entitate izan behar dute.

2.– Antolamendua egikaritzearen onurak eta kargak modu ekitatiboan banatu ahal izatea bermatzeko, ezin izango da egikaritze-unitaterik mugatu hiri-lurzoruko areetan eta lurzoru urbanizagarriko sektoreetan, baldin eta area eta sektore horien hirigintza-eraikigarritasunak eta kasuan kasuko antolamendu-eremu, -area edo -sektorearen batez besteko hirigintza-eraikigarritasunak % 5 baino gehiagoko aldea badute beren artean. Eraikigarritasun-alde horiek ez dute sekula kalte-ordainerako eskubiderik eragingo, eta ez dira erabiliko konpentsatzeko edo eskualdatzeko.

3.– Ezin izango da egikaritze-unitaterik mugatu nahitaz eta doan lagatzeko lursailen inguruan, baldin eta lursail horiei dagokien zatia sartzen ez bada unitateetan.

4.– Egikaritze-unitateek etenak izan ditzakete hiri-lurzoruan. Egikaritze-unitateetan sartutako hiri-

b) En caso de disconformidad o no respuesta en el citado plazo, apertura de un periodo de negociaciones y consultas por plazo de otros dos meses a fin de llegar a un acuerdo. En caso de no lograrse el acuerdo, a través del departamento competente en materia de ordenación del territorio se solicitará la habilitación al Consejo de Gobierno, previo informe favorable de la Comisión de Ordenación del Territorio.

SECCIÓN QUINTA  
UNIDADES DE EJECUCIÓN

**Artículo 143.**– Unidades de ejecución.

1.– Las unidades de ejecución constituyen el ámbito espacial de una actuación urbanizadora. Deberán incluirse en ellas los suelos dotacionales precisos y las parcelas edificables que como consecuencia de la actuación se transformen en solares.

2.– La ejecución de los programas de actuación urbanizadora se realizará por una o varias unidades de ejecución completas.

**Artículo 144.**– Requisitos para la delimitación de unidades de ejecución.

1.– Las unidades de ejecución se delimitarán de forma que permitan el cumplimiento conjunto de los deberes de cesión, equidistribución y urbanización de toda su superficie, cumpliendo para ello los siguientes requisitos:

a) Por sus dimensiones y las características de la ordenación y la urbanización, ser susceptibles de asumir las cesiones de suelo derivadas de la presente ley, el planeamiento y los programas de actuación urbanizadora.

b) Hacer posible la distribución equitativa de los beneficios y cargas de la urbanización.

c) Tener entidad suficiente para justificar técnica y económicamente la autonomía de la actuación.

2.– Para hacer posible la distribución equitativa de los beneficios y cargas de la urbanización, dentro de cada área en suelo urbano, y de cada sector en suelo urbanizable, no se podrán delimitar unidades de ejecución cuya edificabilidad urbanística media difiera en más de un 5% de la edificabilidad urbanística media del ámbito de ordenación, área o sector de que se trate. Estas diferencias de edificabilidad urbanística media en ningún caso generarán derecho indemnizatorio alguno ni serán objeto de compensación ni transferencia.

3.– No podrán delimitarse unidades de ejecución inmediatas a terrenos de cesión obligatoria y gratuita sin incluir en ellas la parte correspondiente de los indicados terrenos.

4.– En suelo urbano las unidades de ejecución podrán ser discontinuas. El suelo urbano incluido en uni-



lurzoruak hiri-lurzoru finkatugabe izaera eduki behar du.

**145. artikulua.**— Egikaritze-unitateak mugatzeko prozedurak.

1.— Urbanizatzeko jarduketa-programetan eta planetan mugatu daitezke egikaritze-unitateak; bidezko baderitzo, udal-administrazioak ere muga ditzake ofizios edo alde batek eskatuta, lehenago hasierako onepena eman, interesdunei jakinarazi, 20 egun jendaurrean jarri eta behin betiko onartu eta gero. Mugaketa eraginkorra izateko, beharrezkoa izango da dagokion lurralde historikoko aldizkari ofizialean argitaratzea behin betiko onepena.

2.— Egikaritze-unitate baten mugaketa aldatzeko, artikulua honetako aurreko paragrafoan aurreikusitako prozedurari jarraituko zaio. Berdin dio aldaketa hori plangintzan edo urbanizatzeko jarduketa-programan azaltzea, edo modu autonomoan egina izatea.

**146. artikulua.**— Egikaritze-unitateak eta jabari eta erabilera edo zerbitzu publikoko ondasunak.

1.— Doaneko lagapenez lortu gabeko jabari eta erabilera edo zerbitzu publikoko ondasunak baldin badaude egikaritze-unitate batean, ondasunon titularra den administrazioaren esku egongo da unitatearen azalera-ri dagokion hirigintza-eraikigarritasuna.

2.— Doaneko lagapenez lortutako jabari eta erabilera publikoko ondasunen kasuan, lehendik zeuden ondasunen azalera, hain zuzen, antolamendua egikaritzearen ondorioz sortutakoak adinakoak edo txikiagoak baldin badira, elkarren ordezkotzat joko dira. Azalera handiagoak badira, soberakina lursail eraikigarritan eskuratuko du administrazioak, dagokion proportzioan.

SEIGARREN ATALA  
URBANIZATZE-KARGAK

**147. artikulua.**— Urbanizatzeko-kargak. Kontzeptua.

1.— Egikaritze-unitate batean sartutako lursailen jabeen karguak diren urbanizatzeko-kargak, honako kontzeptu hauei dagozkien guztiak dira:

a) Bidegintzako obrak. Besteak beste, hauek sartuko dira betiere: galtzada berdintzea, finkatzea eta zolatztea; espaloiak egitea eta zintarriak jartzea —hor sartuko dira mugikortasun urria duten pertsonak ibili ahal izateko beharrezko obrak ere—; eta bideen eta espaloien lurpean zerbitzuetarako kanalizazioak egitea.

b) Saneamenduko obrak. Besteak beste, hauek erai-kiko dira, egikaritze-unitateari dagokion proportzioan: kolektore orokorrak eta partzialak, harguneak, estoldak, euri-uren hustubideak eta ur-araztegiak.

dades de ejecución deberá tener la condición de suelo urbano no consolidado.

**Artículo 145.**— Procedimiento de delimitación de las unidades de ejecución.

1.— La delimitación de las unidades de ejecución podrá realizarse en los planes y los programas de actuación urbanizadora, o, cuando proceda, por la administración municipal de oficio o a instancia de parte, previos los trámites de aprobación inicial, notificación a los interesados, información pública durante veinte días y aprobación definitiva. Para la efectividad de la delimitación se precisará la publicación de la aprobación definitiva en el boletín oficial del territorio histórico correspondiente.

2.— La modificación de la delimitación de una unidad de ejecución, ya aparezca realizada en el planeamiento o en un programa de actuación urbanizadora, ya se hubiera realizado de manera autónoma, seguirá el mismo procedimiento previsto en el apartado precedente de este artículo.

**Artículo 146.**— Unidades de ejecución y bienes de dominio y uso o servicio público.

1.— Cuando en una unidad de ejecución existan bienes de dominio y uso o servicio público que no hubieran sido obtenidos por cesión gratuita, la edificabilidad urbanística correspondiente a su superficie pertenecerá a la administración titular de aquellos.

2.— En el supuesto de obtención por cesión gratuita, cuando las superficies de los bienes de dominio y uso público anteriormente existentes fueran iguales o inferiores a las que resulten como consecuencia de la ejecución de la ordenación, se entenderán sustituidas unas por otras. Si tales superficies fueran superiores, la administración percibirá el exceso en la proporción que corresponda, en terrenos edificables.

SECCIÓN SEXTA  
CARGAS DE URBANIZACIÓN

**Artículo 147.**— Cargas de urbanización. Concepto.

1.— Las cargas de urbanización que corren a cargo de los propietarios de los terrenos comprendidos en una unidad de ejecución son todas las correspondientes a los siguientes conceptos:

a) Obras de vialidad, que comprenden en todo caso las de explanación, afirmado y pavimentación de calzadas, las de construcción y encintado de aceras, incluyendo las obras precisas para facilitar su accesibilidad a las personas de movilidad reducida, y las de construcción de las canalizaciones para servicios en el subsuelo de las vías o de las aceras.

b) Obras de saneamiento, que comprenden las de construcción de colectores generales y parciales, acometidas, alcantarillas, sumideros para aguas pluviales y estaciones depuradoras, en la proporción que corresponda a la unidad de ejecución.

c) Zerbitzu publikoak instalatu eta abian jartzeko obrak. Alde batetik, ur-hornidurako zerbitzuak, besteak beste hauek: edateko ura etxera eramatea, ureztatzea eta suteen aurkako ur-ahoa jartzea; bestetik, energia hornitzeko zerbitzuak, besteak beste hauek: energia eraman, banatzeko eraldatu eta banatzea; eta azkenik, argiteria publikoa, telefonozko komunikazioa eta antolamenduan aurreikusitako gainerakoak.

d) Lorategiak egiteko eta zuhaitzak landatzeko obrak; eta, halaber, hiriguneak, parkeak, lorategiak eta bide publikoak altzariz hornitzekoak.

e) Proiektu teknikoak idaztea, bai eta antolamendu xehaturako beharrezkoak diren garapen-plangintzako tresnak eta urbanizazio- eta birpartzelatze-proiektuak tramitatzerakoan nahitaezkoak diren iragarkiak argitaratzea.

f) Urbanizatzeko jarduketaren sustapen- eta kudeaketa-gastuak. Hor sartuko da eragile urbanizatzailearen enpresa-onura ere, hala dagokionean eta lege honetako 150.a artikuluan zehaztutako zenbatekoan.

g) Jabe batzuei edo eskubideen titular batzuei errentamendu eskubideak ere hor sartuta-, beste bizileku bat emateko eta jarduerak berriro instalatzeko, lege honen arabera dagozkien kalte-ordainak eta gastuak. Zehazki kasu hauetan aplikatuko da: antolamendua egikaritzearen ondorioz eraitsi behar diren etxe eta eraikinen kasuan, eta plangintzarekin bat ez etortzearen desagertu behar duten landaketa, obra eta instalazioen kasuan.

h) Horiez gain, egikaritu behar den hirigintza-antolamenduan edo jarduketa-programan berariaz aurreikusten bada, baita ondorengoak ere: azpiegitura-obrak eta egikaritze-unitateaz kanpoko zerbitzuak, baldin eta beharrezkoak badira bai unitateko sareak udaleko edo udalez gainetiko sare orokorrekin egokiro lotzeko, bai sareon funtzionalitatea mantentzeko; eta orobat lursail ei ezartzen zaizkien gainerako karga osagarri guztiak.

i) Eragile urbanizatzaileari eta sortutako orubeen jabeen urbanizazioaren kontserbaziorako dagozkien gastuak, harik eta egindako obrak administrazioak jaso arte.

2.- Sortutako orubeen jabeek eta, hala behar izanez gero, eragile urbanizatzaileak berak eskubidea izango dute zerbitzuak laga eta prestatu zituzten erakundeen kargura gastu batzuen ordaina jasotzeko. Gastuok obra hauek eragindakoak izango dira: edateko uraren hornidura-zerbitzuak lehenengo jartzea eta horiek mantentzea, energia elektrikoaren eta gasaren hornidura eta, hala behar denean, telefonia eta telekomunikazioak. Ordaindu beharreko gastuen zatia, betiere, zerbitzuok emateko arauen eta baldintzen arabera bezeroek ordaindu behar ez dutena izango da. Administrazio jarduleak emandako agiri bidez egiaztatuko dira zerbitzuak jartzeko eta kontserbatzeko kostuak.

c) Obras para la instalación y funcionamiento de los servicios públicos de suministro de agua, que incluyen las de distribución domiciliaria de agua potable y de riego e hidrantes contra incendios, y las de suministro de energía, que comprenden la conducción, la transformación para su distribución y la distribución, así como el alumbrado público, las telecomunicaciones y cualesquiera otras que estuvieran previstas por la ordenación.

d) Obras de ajardinamiento y arbolado, así como de amueblamiento urbano, de parques y jardines y vías públicas.

e) Redacción de proyectos técnicos y publicación de anuncios preceptivos en la tramitación administrativa de los diferentes instrumentos de planeamiento de desarrollo precisos para la ordenación detallada y de los proyectos de urbanización y de parcelación.

f) Gastos de promoción y gestión de la actuación urbanizadora, incluido, en su caso, el beneficio empresarial del urbanizador en la cuantía determinada en el artículo 150.a de esta ley.

g) Indemnizaciones y gastos de realojo de vivienda y instalación de actividades que procedan, conforme a esta ley, a favor de propietarios o titulares de derechos, incluidos los de arrendamiento, de edificios y construcciones que deban ser demolidos con motivo de la ejecución de la ordenación, así como de plantaciones, obras e instalaciones que deban desaparecer por resultar incompatibles con ésta.

h) Cuando así se prevea expresamente en la ordenación urbanística a ejecutar o en el programa de actuación, además, las obras de infraestructura y servicios exteriores a la unidad de ejecución que sean precisas tanto para la conexión adecuada de las redes de la unidad a las generales municipales o supramunicipales, como para el mantenimiento de la funcionalidad de éstas, así como cualesquiera otras cargas suplementarias que se impongan a los terrenos.

i) Los gastos de conservación de la urbanización que corresponden al agente urbanizador y a los propietarios de los solares resultantes hasta la recepción por la administración de las obras realizadas.

2.- Los propietarios de los solares resultantes y, en su caso, el agente urbanizador tendrán derecho a resarcirse, con cargo a las entidades concesionarias o prestadoras de los servicios, de los gastos correspondientes a las obras precisas para el primer establecimiento y el mantenimiento de los servicios de abastecimiento de agua potable, suministro de energía eléctrica y gas y, en su caso, telefonía y telecomunicaciones, en la parte que, conforme a la reglamentación o las condiciones de prestación de éstos, no deba ser asumida por los usuarios. Los costes de establecimiento y de conservación se acreditan mediante certificación expedida por la administración actuante.

3.– Birpartzelazio-prozesu baten parte diren lursail kutsatuak berroneratzeko eta egokitzeko gastuen erantzukizuna, hain zuzen, kutsadura edo aldaketa hori eragin duten pertsona fisikoak edo juridikoak izango dira, Lurzorua ez Kutsatzeko eta Kutsatutakoa Garbitzeko 1/2005 Legean ezarritakoaren arabera. Alabaina, udalak, egoki iruditzen baldin bazaio, birpartzelazio-erkidegoari agindu ahal izango dio, modu subsidiarioan eta behartuta dagoen eta erantzukizuna duen pertsonaren kontura, lursailak garbitzeko eta egokitzeko lanak egitea, eta jarduketara horren kostua urbanizazio-kargatzat hartuko da. Jarduketaren gastuak behartuta dagoen pertsonari ordainaraziko dizkio birpartzelazio-erkidegoak, edo, halakorik ez badago, jarduketara egin beharreko lursailen titularrari, ingurumen-legeriak ezartzen duenari jarraituz.

4.– Udalak, urbanizatzeko-kuotak onartzerakoan, ordainketa urbanizatzeko-lanak amaitu arte atzeratzea erabaki ahal izango du, jabe eskatzaileak inguruabar ekonomiko bereziak dituela kontuan hartuta –erregelamenduz ezarriko dira inguruabarrok–.

#### ZAZPIGARREN ATALA EGIKARITZEKO SUBJKTU PRIBATUAK

**148. artikulua.**– Hirigintza-intereseko elkarteak. Kontzeptua.

Jarduketa integratu baten barruan dauden lursailen jabeek hirigintza intereseko elkarte bat osa dezakete, egikaritze-jarduketan parte hartzeko edo hartan lankide izateko. Elkarte horrek, inola ere, honako baldintza hauek bete beharko ditu:

1.– Ekimenak eragindako azaleraren % 50 baino gehiago ordezkatzeko duten lursailen jabeek osatzea.

2.– Erabakitze ahalmena edukitzea elkartearen bilgutako jabeen lursailen gainean.

3.– Ekimenak eragindako gainerako jabeek elkartearen kide izateko eskubidea aitortzea, elkartearen sortutako jabeek dituzten baldintza eta eskubide berekin.

4.– Eraketa eskritura publikoan formalizatuta edukitzea –estatutuak ere sartuko ditu eskrituran–, eta hirigintza intereseko elkartearen erregistroan izena emanda egotea –kasuan kasuko lurralde historikoko hirigintza-sailean egongo da erregistroa–.

**149. artikulua.**– Eragile urbanizatzailea. Kontzeptua.

1.– Eragile urbanizatzailea, hain zuzen, ekimen ekonomikoa erabiltzaile kasuan kasuko jarduketa integratu egikaritzeko ardura bere gain hartzen duen subjektu publiko edo pribatua da. Ardura hori, betiere, dena delako urbanizatze jarduketara-programa behin betiko esleipetzearen karia hartzen du, bere arriskuarekin eta lege honek ezarritakoaren arabera.

3.– Los gastos de recuperación y adecuación de los terrenos contaminados que deban formar parte de un proceso de reparcelación serán responsabilidad de las personas físicas o jurídicas causantes de dicha contaminación o alteración, en los términos establecidos en la Ley 1/2005, de Prevención y Corrección de la Contaminación del Suelo. No obstante, cuando el ayuntamiento así lo estime, podrá ordenar a la comunidad reparcelatoria, subsidiariamente y a costa de la persona obligada y responsable, la ejecución de dicha descontaminación y adecuación de los terrenos, considerando el coste como una carga de urbanización. Estos gastos serán repercutidos por la comunidad reparcelatoria a la persona obligada o, en su defecto, al titular de los terrenos objeto de la actuación, conforme dispone la legislación medioambiental.

4.– El ayuntamiento, al aprobar el conjunto de las cuotas de urbanización, podrá acordar el aplazamiento del pago hasta la finalización de las obras de urbanización, atendiendo a las especiales circunstancias económicas del propietario solicitante que se establezcan reglamentariamente.

#### SECCIÓN SÉPTIMA SUJETOS PRIVADOS DE EJECUCIÓN

**Artículo 148.**– Agrupaciones de interés urbanístico. Concepto.

Los propietarios de terrenos incluidos en una actuación integrada podrán asociarse en una agrupación de interés urbanístico para participar o colaborar en la actividad de ejecución, siempre que cumpla los siguientes requisitos:

1.– Integrar a los propietarios de terrenos que representen más del 50% de la superficie afectada por la iniciativa.

2.– Contar con poder dispositivo sobre los terrenos de los propietarios integrados.

3.– Haber reconocido a los terceros propietarios afectados por la iniciativa el derecho a adherirse como asociado en las mismas condiciones y análogos derechos a los propietarios fundadores.

4.– Haber formalizado su constitución en escritura pública, que incorporará sus estatutos, y haberse inscrito en el Registro de Agrupaciones de Interés Urbanístico dependiente del Departamento de Urbanismo del territorio histórico correspondiente.

**Artículo 149.**– Agente urbanizador. Concepto.

1.– El agente urbanizador es el sujeto público o privado que, en ejercicio de la iniciativa económica y en virtud de la adjudicación definitiva del correspondiente programa de actuación urbanizadora, asume, a su riesgo y en los términos de esta ley, la responsabilidad de la ejecución de la correspondiente actuación integrada.

2.– Ekimen ekonomikoa erabiltzeko gaitutako edozein pertsona fisiko zein juridiko izan daiteke eragile urbanizatzaile, dagokion jarduketaren arloan lur jabe izan edo ez. Nolanahi ere, bete beharrekoa izango da 172. artikuluan xedatutakoa.

3.– Eragile urbanizatzailea lehia librean eta norgehiagoka publikoan aukeratuko da, salbu eta 160. artikuluan aurreikusitako hitzarmen-sistema erabiltzen bada. Bere lanak administrazio jardulearen zuzendaritza, ikuskaritza eta kontrolpean beteko ditu, horretarako izenpetutako lankidetzak-hitzarmenean ezarritako baldintzei lotuta betiere.

**150. artikulua.**– Jarduketa-eremuan eskubideak dituzten jabe eta titularren eta eragile urbanizatzailearen arteko lotura.

Urbanizatze jarduketa-programa bat esleitzeko ardura duena ez bada jarduketa-eremuan eragindako lur-sail, etxe eta eraikinen jabea, eta esleitua eta jabeak ez badira ados jartzen, honela arautuko da beren arteko harremana:

a) Eragile urbanizatzaileak eskubidea izango du urbanizazio-kargen kopuruaren arabera jabeen kargura konpentsatzeko, bai eta jabe horiek bere kudeaketa-gastuetatik kopuru bat ordaintzeko ere; urbanizatze jarduketa-programa esleitzeko lehiaketaren oinarrietan finkatuko da kopuru horren gehienezkoa. Jarduketaren urbanizazio-kargen zenbatekoaren arabera kalkulatu da kopuru hori, baina ezingo da izan, kontzeptu guztiengatik, dagokion urbanizatze jarduketa-programak zehaztutako urbanizate-obraen kopuruaren % 12 baino gehiago.

b) Eragile urbanizatzailearen kontura izango dira, jabeen kontura uzteko aukerarik gabe, esleipenerako hitzarmenean berariaz beretzat hartu dituen urbanizate-eta, hala badagokio, eraikitze-gastuak.

c) Urbanizate-kargak –kudeaketa-gastuak barne– jabeek ordainduko dizkiote eragile urbanizatzaileari, jabeek berek nahi duten eran: bai diruz, bai, eraikitzea hitzartu bada, orube eraikigarriak, lurrazal-eskubideak edo, bestela, etxebizitzak, lokalak zein eraikinak eman ez, bai, hala hitzartu bada, ordainketa-modu horien nolanhiko konbinazioz.

d) Aurreko arauak xedatutakoa hala bada ere, urbanizatzaileak kasu batean edukiko du, jabeen aurrean, jabeek orube eraikigarrien edo, halakorik bada, azalera-eskubideen bidez konpentsatu diezaioten aukeratzeko lehentasuna: konpentsazio hori babes publikoko araubide bati atxikitako etxebizitzak egiteko kalifikatutako lurzoruen gain egiten bada. Hala jokatuta, dena delako urbanizatze jarduketa-programa esleitzerakoan administrazioaren aurrean hartutako eginbeharrak beteko dira.

2.– Puede ser agente urbanizador cualquier persona física o jurídica capacitada para ejercer la iniciativa económica, sea o no propietaria de terrenos en el ámbito de su correspondiente actuación integrada, sin perjuicio de lo establecido en el artículo 172.

3.– El agente urbanizador se seleccionará por libre concurrencia y pública competencia, salvo el sistema de concertación previsto en el artículo 160, y ejercerá sus actividades bajo la dirección, inspección y control de la administración actuante, con sujeción, en todo caso, a las condiciones establecidas en el convenio de colaboración suscrito al efecto.

2.— En los concursos podrán ser valoradas por el ayuntamiento las garantías de cohesión y acuerdo con los propietarios y afectados de la actuación, basadas en los criterios de valoración adoptados y en las propuestas relativas al modo y plazos de retribución del urbanizador.

**Artículo 167.**— Tramitación del concurso para la adjudicación de los programas de actuación urbanizadora en régimen privado.

1.— Una vez definitivamente aprobado el programa de actuación urbanizadora, se publicará el anuncio de la aprobación definitiva en el boletín oficial del territorio histórico, conteniendo el expreso llamamiento a posibles licitadores, y en el plazo de dos meses cualquier persona física o jurídica, sea o no propietaria, podrá presentar una proposición jurídico-económica.

2.— Las proposiciones jurídico-económicas se presentarán en plica cerrada junto con, en su caso, los acuerdos alcanzados con los propietarios.

3.— Todas las proposiciones jurídico-económicas deberán acompañarse de la acreditación de la constitución de una garantía provisional, cuyo importe será el que se fije reglamentariamente, con el mínimo del 1% de las cargas de urbanización de que se trate. Si se adjudica el programa de actuación urbanizadora presentado, la garantía provisional será retenida y deberá complementarse o sustituirse hasta alcanzar un importe mínimo del 7% de las cargas de urbanización como garantía definitiva. En caso contrario, será devuelta.

4.– Proposamenak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo bost egun baliodunen barruan egingo da gutun-azal zigilatua irekitzeko ekitaldi publikoa. Egintza horren garapenaz eta emaitzaz akta egingo da, administrazio-fede publikoz. Jarduketa guztiak kontsultatu ahal izango dituzte interesdunek, eta alegazioak aurkeztu ere bai, gutun-azal zigilatua ireki eta hurrengo 10 egunetan.

5.– Artikulu honetan xedatutakoari dagokionez, aldikari ofizialeko argitalpenak urbanizatzeko eta, hala behar bada, eraikuntza-lanen zenbatekoaren araberakoak direla iritziko zaio, dena ere administrazioaren kontratuen legeriarekin bat etorritik.

**168. artikulua.**– Proposamen juridiko ekonomikoaren edukia.

Lehiatzaileek aurkeztutako proposamen juridiko ekonomikoek honako hauek jaso beharko dituzte, behintzat:

1.– Eragile urbanizatzailearen eta administrazio jardulearen arteko loturari dagokionez:

a) Urbanizatzeko eta, hala behar bada, eraikitze-lanetarako epeen proposamena.

b) Kalitatei buruzko memoria, baldin eta urbanizatze jarduketaren programan behin betiko onartutako bestekoak badira kalitateok.

c) Eragile urbanizatzailearen eta administrazio jardulearen artean izenpetu beharreko hirigintza-hitzarmenaren proposamena. Eragile urbanizatzaileak bere gain hartzen dituen konpromisoak ere jasoko ditu.

2.– Alde batetik, eragile urbanizatzailearen eta, bestetik, jabeen eta eskubide titularren arteko harremanei dagokienez:

a) Hala badagokio, eragile urbanizatzaileak jabeen lursailak erabilgarri edukitzearen justifikazioa. Orobat alde bien artean lortutako akordioak ere, horien artean ezinbestean sartuta, alde batetik, lurzorua eta eragindako ondasunak eta eskubideak baloratzeko irizpideak eta formulak, eta bestetik, eragile urbanizatzailearen ordaintze-moduari eta epeei buruzko proposamenak.

b) Urbanizatzeko karga guztien kalkulua, bai eta eragile urbanizatzaileak eragindako jabeen kudeaketa-gastu gisa gehenez ordainaraztera konprometitzen den kopuru osoaren kalkulua ere.

c) Onurak eta kargak modu ekitatiboan banatzeko proposamena, esleipen-diferentziak konpentsatzeko eta urbanizatzeko kargen kontraprestazioa emateko. Lurzoruen balioa eta balio horrek hirigintza-erakigarritasunean duen eragina ere sartuko dira proposamenean.

d) Birpartzelazio-proiektua aurkezteko gehieneko epea.

4.– El acto público de apertura de plicas se celebrará en los cinco días hábiles siguientes a la finalización del periodo de presentación de proposiciones. De su desarrollo y resultado se levantará acta, bajo fe pública administrativa. Todas las actuaciones podrán ser objeto de consulta y alegación por los interesados durante los diez días siguientes al de apertura de plicas.

5.– En lo dispuesto en este artículo, las publicaciones en el boletín oficial se habrán de entender referidas a la publicación que corresponda por la cuantía de las obras de urbanización y, en su caso, edificación, todo ello conforme a la legislación sobre contratación administrativa.

**Artículo 168.**– Contenido de las proposiciones jurídico-económicas.

Las proposiciones jurídico-económicas que se presenten por los licitantes deberán contener, por lo menos, los siguientes extremos:

1.– En cuanto a las relaciones entre el agente y la administración actuante:

a) Proposición de plazos de las obras de urbanización y, en su caso, de edificación.

b) Memoria de calidades, si fueran diferentes a las aprobadas definitivamente en el programa de actuación urbanizadora.

c) Propuesta de convenio urbanístico a suscribir entre el agente urbanizador y la administración actuante con expresión de los compromisos asumidos por aquél.

2.– En cuanto a las relaciones entre el agente y los propietarios y los titulares de derechos:

a) Justificación, en su caso, de la disponibilidad del agente urbanizador sobre los terrenos de los propietarios y titulares de derechos, y los acuerdos ya alcanzados, que deberán incluir, en todo caso, los criterios y fórmulas de valoración del suelo y de los bienes y derechos afectados, y las propuestas relativas al modo y plazos de retribución del agente urbanizador.

b) Estimación de la totalidad de las cargas de urbanización y de la cantidad total que en concepto de gastos de gestión el agente urbanizador se compromete a repercutir, como máximo, a los propietarios afectados.

c) Propuesta de equidistribución de beneficios y cargas, que incluirá el valor del suelo y de su repercusión en la edificabilidad urbanística, a efectos de compensación de las diferencias de adjudicación y de contraprestación de las cargas de urbanización.

d) Plazo máximo de presentación del proyecto de parcelación.

LAUGARREN ATALA  
JARDUKETA-PROGRAMAK ARAUBIDE PRIBATUZ  
ESLEITZEKO SISTEMA

**169. artikulua.**– Jarduketa-programak esleitzea.

1.– Jarduketa egikaritzeko aurkeztutako ekimen guztiak ezetsi egin ditzake udalak, arrazoiak emanez, bakar batek ere oinarri nahikorik ez duela iritzita. Kasu horretan, interes orokorrerako eta hirigintza-antolamendua egikaritzeko onena iruditzen zaion erabakia hartuko du, hauen artetik:

- a) Jarduketa-sistema aldatzea.
- b) Jarduketa-programaren bestelako baldintza oro aldatzea.
- c) Jarduketa-programa indarrrik gabe uztea.
- d) Lizitaziorako epe berria irekitzea.

2.– Urbanizatzeko jarduketa-programa esleitzeari buruz, lehiaketa-sistema erabiltzen denean gehienez ere 40 egunetan hartu beharko du erabakia udalak, proposamenak irekitzen diren egunetik kontatuta.

3.– Behin betiko onartutako urbanizatzeko jarduketa-programan guztiz edo zati batez txertatu edo egikaritzeko diren antolamendu xehatuko plangintza edo alternatibak, azterlanak edo proiektu teknikoak aurkeztu dituen pertsona ez baldin bada esleipenduna, erre-dakzio-gastu frogatuak esleipendunak ordaintzea eta diru hori gastuok edo ekarpenok egin dituenari ematea bermatuko du udalak.

4.– Urbanizatzeko jarduketa-programa egikaritzeko esleipena hirigintza-hitzarmenez egingo da, eta hitzarmen hori, alde batetik, hitzarmen-batzarrak edo eragile urbanizatzaileak eta, bestetik, administrazio jarduleak izenpetuko dute. Honako hauek jasoko ditu hitzarmenak: programa egikaritzeko baldintzak, konpromisoak eta epeak; horiek beteko dituela ziurtatzeko, batzarrak edo eragile urbanizatzaileak jartzen dituen bermeak; eta ez betetzeak dakartzan zigorrak. Lurralde historikoko aldizkari ofizialean argitaratuko da hitzarmena, eta jakinarazpen formala eta bana-banako bidalko zaie programaren edukiak eragiten dien jabe eta bestelako guztiei.

**170. artikulua.**– Programa esleitzeko baldintzen aldaketa.

1.– Urbanizatzeko jarduketa-programen esleipendunek eskubidea izango dute konpentsazioa eskuratzeko, hain zuzen ere, esleipena suntsitzeak edo jarduketaren egikaritze-garapen normala bertan behera uzteak edo atzeratzeak eragindako kalte-orgainengatik, baldin eta, administrazioaren kontratuei buruzko legeria orokorrean aurreikusitako moduan, gertaera horiek administrazio jarduleari guztiz egotzi dakizkiokkeen arrazoiengatik izan badira.

SECCIÓN CUARTA  
RÉGIMEN DE ADJUDICACIÓN DE LOS PROGRAMAS  
DE ACTUACIÓN EN RÉGIMEN PRIVADO

**Artículo 169.**– Adjudicación de los programas de actuación.

1.– El ayuntamiento podrá rechazar motivadamente todas las iniciativas para ejecutar la actuación por considerar que ninguna de ellas ofrece base adecuada para ello, en cuyo caso adoptará la decisión que considere oportuna, conforme al interés general y en orden a la ejecución de la ordenación urbanística, entre las siguientes:

- a) Modificar el sistema de actuación.
- b) Modificar cualesquiera otras condiciones del programa de actuación.
- c) Dejar sin efecto el programa de actuación.
- d) Abrir un nuevo plazo de licitación.

2.– El plazo máximo para la resolución por el ayuntamiento sobre la adjudicación de un programa de actuación urbanizadora, en el supuesto de concurso, será de cuarenta días desde la fecha de apertura de proposiciones.

3.– El ayuntamiento garantizará el reembolso, por cuenta del adjudicatario, de los gastos justificados de redacción a favor de quien, no habiendo resultado adjudicatario, hubiera formulado el planeamiento de ordenación pormenorizada o las alternativas, estudios o proyectos técnicos que total o parcialmente se incorporen al programa de actuación urbanizadora aprobado definitivamente o sean útiles para su ejecución.

4.– La adjudicación de la ejecución del programa de actuación urbanizadora se formalizará mediante convenio urbanístico a suscribir, de una parte, por la junta de concertación o el agente urbanizador, y, de otra, por la administración actuante. En él se harán constar las condiciones, los compromisos y los plazos para la ejecución del programa, las garantías que la junta o el agente urbanizador presta para asegurar su cumplimiento, y las penalizaciones a las que se somete por incumplimiento. Este convenio será objeto de publicación en el boletín oficial del territorio histórico y de notificación formal e individualizada a todos los propietarios y afectados por el contenido del programa de actuación urbanizadora.

**Artículo 170.**– Modificación de las condiciones de adjudicación del programa.

1.– Los adjudicatarios de programas de actuación urbanizadora tendrán derecho a que se les compense, en los términos previstos en la legislación general de contratación administrativa, de los daños y perjuicios que se les sigan por la resolución de la adjudicación o por la paralización o el retraso del normal desarrollo de la ejecución de la actuación debidos exclusivamente a decisiones de la administración actuante.



2.– Urbanizatzeko jarduketa-programaren aurreikuspenak aldatuta haren garapena aldatzen duten ebazpen publikoek, ezelan ere, jarduketaren oreka ekonomikoak berrezartzeko dena delako konpentsazio ekonomikoak eragingo dituzte, izan administrazioaren alde, izan esleipendunaren alde. Lehiaketaz esleitzen denean aldaketok, duten garrantzia dela-eta, esleipendunak bere gain hartutako konpromisoen eta eginbeharren kostuaren edo balioaren % 20 baino gehiagori eragiten badio, suntsitu egingo da esleipena. Salbuespena egingo da jarduketaren egoerak interes publikoak urratzen baditu edo, interesok ahalik ondoen betetzeko, aldean arteko akordioa lortzen bada jarduketari ekin ahal izateko.

3.– Lehiaketaz hautatutako eragile urbanizatzaileak hirugarren bati laga diezaioke eskritura publiko bidez bere kondizioa, baldin eta administrazio jardulearen aurrean bere eginbehar guztietan subrogatzen badu, eta administrazioak onartu egin beharko du lagapena. Alabaina, lagapenak interes orokorra urratu edo lehiaketa publikoan esleitu beharra defraudatu egiten badu, ukatu egingo du edo, bestela, egikaritze-araubide publiko aplikatzea erabakiko du. Jarduketaren zati edo atal gutxiengodunerako lagapen partzialak zera eskatzen du: behar bezala koordinatutako programazio bat edo hasierako programazioaren eskakizunak asebeteko dituzten konpromiso batzuk bere egitea lagatzaileak eta hartzaileak, modu solidarioan edo elkartuan.

4.– Lehiaketaz hautatutako eragile urbanizatzaileak bere prestazio osagarriak hirugarren batekin administrazio jardulearen aurrean dituen erantzukizunak eskualdatu gabe kontratatu ahal izango ditu, administrazio jardulari prestazio horien berri emanda.

5.– Urbanizatzeko jarduketa-programa esleitzearekin sortutako harremanek jarraibide hauek izango dituzte: behin betiko esleipena formalizatzeko hitzarmena, lege honetako xedapenak, legearen garapenerako xedapenak eta administrazioaren kontratugintzari buruzko arauak.

**171. artikulua.**– Urbanizatzeko jarduketa-programaren hitzarmena suntsitzea.

1.– Hitzarmena ofizioz edo hitzarmen-batzarrak edo eragile urbanizatzaileak hala eskatuta suntsituko du administrazioak. Erantzukizun ekonomikoak direnak direla, urbanizatzeko jarduketa-programaren esleipena irautitzea dakar hitzarmena suntsitzeak.

2.– Hitzarmena suntsitzeko arrazoiak hauek izango dira, gutxienez:

a) Hitzarmen-batzarrak, eragile urbanizatzaileak edo administrazio jarduleak programa esleitzerakoan biek hala biek hartutako konpromisoak ez betetzea. Nolanahi ere, aplikatzekoak izango dira kontratuan berriaz hitzartutako zigorrak.

2.– Las decisiones públicas que alteren el desarrollo de una actuación y varíen las previsiones del programa de actuación urbanizadora comportarán las compensaciones económicas que procedan para restaurar el equilibrio económico de la actuación, sea en favor de la administración, sea en el del adjudicatario. Cuando estas alteraciones, por su importancia, en supuestos de adjudicación por concurso, afecten en más de un 20% del coste o valor de los compromisos y las obligaciones asumidas por el adjudicatario, se resolverá la adjudicación, salvo que, por el estado del desarrollo de la actuación, ello lesione los intereses públicos, o que, para la mejor satisfacción de éstos, se alcance acuerdo entre las partes afectadas que permita proseguir la actuación.

3.– El agente urbanizador seleccionado por concurso puede ceder su condición, en escritura pública, a tercero que se subrogue en todas sus obligaciones ante la administración actuante, que deberá aprobarla. Si la cesión menoscaba el interés general o supone defraudación de la adjudicación en pública competencia, la administración denegará la aprobación o acordará la aplicación del régimen público de ejecución. La cesión parcial, para un tramo o porción minoritaria de la actuación, requerirá que entre cedente y adquirente asuman, solidaria o mancomunadamente, una programación debidamente coordinada y un conjunto de compromisos que satisfagan las exigencias de la programación originaria.

4.– El agente urbanizador seleccionado por concurso puede contratar prestaciones accesorias de su gestión con cualquier tercero sin transmitirle sus responsabilidades ante la administración actuante, a la que dará cuenta de ello.

5.– Las relaciones derivadas de la adjudicación del programa de actuación urbanizadora se regirán por el convenio que formalice la adjudicación definitiva, así como por las disposiciones contenidas en la presente ley, disposiciones de desarrollo y normativa propia de la contratación administrativa.

**Artículo 171.**– Resolución del convenio del programa de actuación urbanizadora.

1.– La resolución del convenio se acordará por la administración actuante de oficio o a instancia de la junta de concertación o del agente urbanizador, según corresponda. Sin perjuicio de las responsabilidades económicas que procedan, la resolución determinará la caducidad de la adjudicación del programa de actuación urbanizadora.

2.– Las causas de resolución serán al menos las siguientes:

a) El incumplimiento por la junta de concertación, el agente urbanizador o la administración actuante de los compromisos asumidos por ambos con ocasión de la adjudicación del programa, sin perjuicio de las penas contractuales que expresamente se hubieran pactado.

b) Aurreko artikuluan aurreikusitako eran administrazioak bere aldetik nabarmen aldatzea esleipen-baldintzak.

c) Izenpetutako itunean administrazio jarduleak eta hitzarmen-batzarrak edo eragile urbanizatzaileak beraiz hitzartutako arrazoiak.

3.– Ez-betetze larria egiteagatik aurreko zenbakian aurreikusitako hitzarmen-suntsitzea gertatzen bada, esleipendunari kendu ahal izango zaio eragile urbanizatzaile izateko gaitasuna beste lehiaketa batzuetara aurkezteko.

4.– Hitzarmena suntsitzeko erabakiak honako hauek ere jaso behar ditu, hala behar duenean:

a) Zenbait oruberen hirigintza-eraikigarritasuna deklaratzeko, horien jabeek nahikoa erantzun badiete urbanizatze-kargei.

b) Lursailak birsailkatzeko prozedura hastea, urbanizatze-obrak nahiko aurreraturik izatearren obrok jarduketara isolatuen araubidez amaitzea bideragarria duenean.

c) Programazio berri bat hitzartzeko behar den prozedurari ekitea. Eragile urbanizatzaile berriak, programazio horretan, bere gain hartuko ditu egikaritu gabeko eginbeharrak eta hartarako erabiliko ditu iraungitako esleipenaren likidaziotik eratorritako ondasun eta baliabideak.

d) Eginbeharrak betetzen ez dituen kasuetarako, urbanizatze jarduketara-programan bertan aurreikusitako kontratu-zigorak hitzartzea; eta, betiere, eginbehar horien berme gisa aurkeztutako fidantza inkautatzea edo abala egikaritzea, lurzoruaren ondare publikoarentzako.

**172. artikulua.**– Administrazioaren kontratugin-tzari buruzko legeriaren aplikagarritasuna.

1.– Urbanizatze jarduketara-programaren egikaritzea esleitzeko prozedurari dagokionez –aurreko artikuluetan zehaztu da–, errespetatu egin behar dira administrazioaren kontratuei buruz indarrean dagoen legerian publikitatearen eta lehiaren gainean ezarritako baldintzak.

2.– Urbanizazio-obrak egikaritze pribatuz kontratatu nahi direnean, kontratu publikoei buruzko legeriaren printzipioak bete behar dira lizitatzailen kaudinamari dagokionez eta publikitateari eta lehiari dagokionez, urbanizazio-obrako kontratistak hautatzeko. Horretarako, kontratisten hautapena lehiaketa publikoiz egingo da, obraren zenbatekoaren arabera aldizkari ofizial batean edo bestean iragarpena eginez eta esleipenerako irizpide objektiboak ezarrituz. Alabaina, baldin eta deitutako lehiaketa publikoan hautatua izan den eragile urbanizatzaileak urbanizazio-obra egikaritzeko eskakizunak betetzen baditu, ez da beharrezkoa izango

b) La modificación sustancial por parte de la administración de las condiciones de adjudicación en los términos previstos en el artículo anterior.

c) Las causas que se hubieran pactado expresamente entre la administración actuante y la junta de concertación o el agente urbanizador a través del correspondiente convenio.

3.– El adjudicatario que incumpla sus compromisos, en caso de incumplimiento grave que motive la resolución prevista en el número anterior, podrá ser inhabilitado en su condición de agente urbanizador para la presentación a otros concursos.

4.– El acuerdo de resolución deberá además, y cuando proceda:

a) Declarar la edificabilidad urbanística de aquellos solares cuyo propietario haya contribuido suficientemente a las cargas de la urbanización.

b) Iniciar el procedimiento para la reclasificación de aquellos terrenos en los que, dado lo avanzado de las obras de urbanización, sea posible concluir las en régimen de actuaciones aisladas.

c) Incoar el procedimiento preciso para acordar una nueva programación en la que el nuevo agente urbanizador asuma las obligaciones pendientes de ejecución, afectando los bienes y recursos resultantes de la liquidación de la adjudicación caducada a ejecutar la que la sustituya.

d) Acordar las penas contractuales previstas en el programa de actuación urbanizadora para el caso de incumplimiento de las obligaciones y, en todo caso, la incautación de la fianza o ejecución del aval presentado en garantía, con destino al patrimonio público de suelo.

**Artículo 172.**– Aplicabilidad de la legislación en materia de contratación administrativa.

1.– En el procedimiento de adjudicación del programa de actuación urbanizadora descrito en los artículos anteriores deberán respetarse los requisitos relativos a publicidad y concurrencia establecidos en la normativa vigente sobre contratación administrativa.

2.– En los sistemas de actuación de régimen de ejecución privada, la contratación de las obras de urbanización deberá seguir los principios de la legislación de contratación pública en cuanto a solvencia de los licitadores y publicidad y concurrencia para la selección de contratistas. A tal efecto, la selección de contratistas se someterá a licitación pública mediante anuncio en el boletín oficial correspondiente en función del importe de la obra, estableciendo los criterios objetivos de adjudicación. No obstante, cuando el agente urbanizador seleccionado en procedimiento de concurso público reuniera los requisitos de capacidad para la ejecución por

beste lizitazio publiko bat abiaraztea, obra horien egikaritzea lehiaketako parte izan denean.

3.– Esleipen-prozedurari, esleipen-baldintzak aldatzeari eta esleipena bera suntsitzeari dagokienez lege honetan zerbait arautu gabe utziz gero, administrazioaren kontratuei buruzko legeria aplikatuko da subsidiarioki.

BOSGARREN ATALA  
JARDUKETA-PROGRAMAK ARAUBIDE PUBLIKOZ  
EGIKARITZEKO SISTEMAK. LANKIDETZA-SISTEMA  
ETA DESJABETZE-SISTEMA

**173. artikulua.**– Lankidetzaren sistema.

1.– Lankidetzaren sistemaren, jabeek nahitaez laga beharreko lurzorua jartzen dute, eta administrazioak urbanizazio-obra egikaritzen ditu jabe horien kontura.

2.– Hirigintza-intereseko elkarteak eratu ahal izango dira, bai lur-jabeen ekimenez bai udalaren erabakiz, urbanizazio-obra egikaritzeko jardunean lankidetzan aritzeko.

3.– Administrazioaren eta eragindako jabeen artean adostasuna izanez gero, unitateko orube, lurrazal-eskubide eta eraikitako etxebizitza, lokal edo eraikin batzuk administrazioari esleituta konpentsatu ahal izango da, osorik edo zati batean, urbanizazio-obra finantzazioa. Horrela egiten ez bada, birpartzelazio-proiektuan jasotako edo proiektuaren garapenean onartutako kitapen-kontuari dagokion urbanizazio-kuotak igorri egingo da finantzazioa. Alabaina, administrazioak babes publiko araubide bati atxikitako etxebizitzak edo interes sozialeko beste erabilera batzuk sustatzeko konpromisoa hartzen duenean, konpromiso hori gauzatzeko beharrezko diren orubeak, lurrazal-eskubideak edo, hala badagokio, etxebizitzak, lokalak edo eraikinak eman egitea ezarri ahal izango du, urbanizazio-kargen konpentsazio-sistema nagusi gisa.

4.– Administrazio jarduleak eskuordetu egin ahal izango dio sistemaren kudeaketa eta urbanizazioaren egikaritzea beste herri-administrazio bati, beste sozietate publiko bati edo hirigintza-partzuergo bati, beren beregi izenpetutako hitzarmen bidez.

**174. artikulua.**– Desjabetze-sistema.

1.– Desjabetze-sistema egikaritze-unitate osoak aintzat hartuta aplikatuko da, eta unitate horietako ondarea eta eskubide guztiak hartuko ditu bere baitan. Horrez gainera, jarduketa isolatuetan sartutako orube edo partzeletan, edo sistema orokorrak edo haien elementuak egikaritzeko ere aplikatu ahal izango da.

2.– Balio justuaren ordainketari dagokionez, desjabetzen den egikaritze-unitate barruko nahiz kanpoko

él mismo de la obra urbanizadora, no será precisa la apertura de una nueva licitación pública, siempre que la ejecución de dichas obras hubiera formado parte del objeto del concurso.

3.– Así mismo, en todo lo no regulado en la presente ley respecto al procedimiento de adjudicación, modificación de las condiciones de la adjudicación y resolución de la misma se aplicará subsidiariamente la normativa vigente sobre contratación administrativa.

SECCIÓN QUINTA  
SISTEMAS DE EJECUCIÓN LOS PROGRAMAS DE  
ACTUACIÓN EN RÉGIMEN PÚBLICO. SISTEMAS  
DE COOPERACIÓN Y EXPROPIACIÓN

**Artículo 173.**– Sistema de cooperación.

1.– En el sistema de cooperación, los propietarios aportan el suelo de cesión obligatoria y la administración ejecuta las obras de urbanización con cargo a los mismos.

2.– Podrán constituirse agrupaciones de interés urbanístico, bien a iniciativa de los propietarios o por acuerdo del ayuntamiento, con la finalidad de colaborar en la ejecución de las obras de urbanización.

3.– La financiación del coste de las obras de urbanización, en caso de acuerdo entre la administración y los propietarios afectados, podrá ser total o parcialmente compensada mediante la adjudicación a la misma de solares, derechos de superficie o viviendas, locales o edificaciones construidas en la propia unidad. En defecto de acuerdo, la financiación se realizará a través del giro de las cuotas de urbanización que resulten de la oportuna cuenta de liquidación incluida en el proyecto de reparcelación o aprobada en su desarrollo. No obstante, cuando la administración asuma el compromiso de promover viviendas sometidas a algún régimen de protección pública u otros usos de interés social, podrá hacer prevalecer la compensación de las cargas de urbanización mediante la entrega de solares, derechos de superficie o, en su caso, viviendas, locales o edificaciones que fueran precisos para materializar dicho compromiso.

4.– La administración actuante podrá delegar la gestión del sistema y la ejecución de la urbanización en otra administración pública, en una sociedad pública o en un consorcio urbanístico mediante convenio suscrito a tal efecto.

**Artículo 174.**– Sistema de expropiación.

1.– El sistema de expropiación se aplicará por unidades de ejecución completas y comprenderá todos los bienes y derechos incluidos en ellas, sin perjuicio de que también pueda aplicarse a solares o parcelas incluidos en actuaciones aisladas o para la ejecución de sistemas generales o elementos de los mismos.

2.– El pago del justiprecio podrá realizarse mediante la adjudicación de terrenos de valor equivalente den-

balio bereko lursailak esleituz egin ahal izango da, beti ere desjabetuarekin ados jarrita.

3.– Desjabetze-sistemaren bidez araubide publiko egikaritzea finkatzen duen urbanizatzeko jarduketaprogramak, betiere, egikaritzea kudeatzeko era hauen artean aukeratu beharko du: administrazio jardulearen kudeaketa zuzena eta desberdindugabea; administrazioari atxikita edo haren menpe dagoen zuzenbide publikoko erakunde baten kudeaketa; beste lurralde-administrazio publiko bati edo haren menpe dagoen zuzenbide publikoko erakunde bati egindako kudeaketa-gomendioa, dagokion hitzarmena alde aurretik izenpetuta; edo kudeaketa beste emakidadun bati esleitzea. Azken kasu horretan, lehiaketa bidez esleituko da emakida. Emakidadunak edozein unetan sartu ahal izango ditu eragindako jabeak jarduketan, haien artean askatasunez hitzartzen dituzten baldintzetan, aurretik administrazio jarduleak desjabetzearen libratzea emanda.

**175. artikulua.**– Desjabetzetik libratzea.

1.– Desjabetze-sistema aplikatzearen ondorioz, organo desjabetzaileek ondasun batzuk libra ditzaketek desjabetzetik, baldintza batzuk ezarrita.

2.– Desjabetzetik libratzeko eskabidea organo desjabetzaileak egokitzat jotzen bada, libratu beharreko ondasunen jabeari jakinaraziko dio zein baldintza, egoera eta proportziotan atxiki behar zaion hirigintza-egikaritzeari, eta aurreko zehaztapenak bete ezean ezarri beharreko bermeak ere finkatuko dira. Edonola ere, ondasunak libratu zaizkionak oinarritzko hirigintza-eginbeharrak bete beharko ditu.

3.– Ondasunak libratzea haiek ordaindu eta okupatu ondoren ematen bada, alde aurretik ondasunok titularrari itzultzea erabakiko da.

4.– Desjabetzailea udala ez bada, udalari entzungo zaio.

5.– Ondasunen jabeek ez badituzte betetzen libratze-ebazpenean ezarritako oinarritzko hirigintza-eginbeharrak, desjabetze-espeditente berri bat hasiko da.

**176. artikulua.**– Hirigintzako desjabetzeak legitimatzea.

1.– Hirigintza-antolamendurako planak eta urbanizatzeko jarduketa-programak behin betiko onartzeak, bai eta lurzoru-ondare publikoak eratzeko edo handitzeko erreserbak ezartzeak ere, bi ondorio ekarriko ditu: lan horiek onura publikoko deklaratzeko, eta lursail horiek eta eragindako ondasun eta eskubide enparauak nahitaez okupatzea, desjabetzeari eta zortasunak ezartzeari begira.

2.– Lege honetan ezarritako hirigintzako eginbeharrak eta betebeharrak ez betetzeak, inola ere, nahitaezko desjabetzea egiteko onura publikorako arrazoia badela ekarriko du, benetan bete daitezkeen bermatze aldera.

tro o fuera de la unidad de ejecución objeto de la expropiación, por acuerdo con la parte expropiada.

3.– El programa de actuación urbanizadora que fije la ejecución en régimen público por el sistema de expropiación deberá elegir la forma de gestión, optando entre la gestión directa e indiferenciada por la administración actuante; la gestión a través de una entidad de derecho público dependiente o adscrita a ella; la encomienda a otra administración pública territorial o a una entidad de derecho público dependiente o adscrita a ella, previa suscripción del correspondiente convenio, o la atribución de la gestión a un tercero concesionario. En este último supuesto, la concesión se otorgará mediante concurso. El concesionario podrá incorporar a la actuación a los propietarios afectados en cualquier momento en las condiciones que libremente pacten, previo otorgamiento por la administración actuante de la liberación de la expropiación.

**Artículo 175.**– Liberación de expropiaciones.

1.– En la aplicación del sistema de expropiación, los órganos expropiantes podrán liberar de la misma, mediante la imposición de las oportunas condiciones, a determinados bienes.

2.– Si el órgano expropiante estimase justificada la petición de liberación, señalará al propietario de los bienes afectados las condiciones, términos y proporción en que deberá vincularse a la ejecución urbanística, y se fijarán, asimismo, las garantías para el supuesto de incumplimiento. En todo caso, el liberado quedará sujeto al cumplimiento de los deberes urbanísticos básicos.

3.– Si la liberación se dictara con posterioridad al pago y ocupación de los bienes objeto de resolución, deberá acordarse la previa reversión de tales bienes a su titular.

4.– Si el expropiante no fuera el ayuntamiento se oirá a este.

5.– El incumplimiento por parte de los propietarios de bienes liberados de los deberes urbanísticos básicos establecidos en la resolución liberatoria determinará el inicio de un nuevo expediente expropiatorio.

**Artículo 176.**– Legitimación de las expropiaciones urbanísticas.

1.– La aprobación definitiva de planes de ordenación urbanística y programas de actuación urbanizadora, así como el establecimiento de reservas para constituir o ampliar patrimonios públicos de suelo, implicará la declaración de utilidad pública de las obras y la necesidad de ocupación de los terrenos y demás bienes y derechos afectados, a los fines de expropiación o imposición de servidumbres.

2.– El incumplimiento de los deberes y obligaciones urbanísticos establecidas en la presente ley determinará la existencia de causa de interés público para la expropiación forzosa a fin de garantizar su efectivo cumplimiento.

177. *artikulua*.– Hirigintza-arrazoiengatikoa desjabetzeak.

Hirigintza-arrazoiak direla eta, honako kasu haue-tan aplikatu ahal izango da desjabetzea:

a) Lursailak eta bestelako ondasunak eta eskubideak eskuratzeko, beharrezkoak baldin badira hirigintza-antolamendua egikaritze publikoko jarduketa integratuen bidez egikaritzeko.

b) Lursailak eta bestelako ondasunak eta eskubideak eskuratu nahi direnean, beharrezkoak direlako sistema orokorren eta tokiko sistemen sarean jarduketa integratuetan sartu gabe edo haiei atxiki gabe dauden zuzkidura publikoak egikaritze aldera.

c) Lursailak eta bestelako ondasunak eta eskubideak eskuratzeko, beharrezkoak baldin badira sistema orokorren eta lokalen sareko zuzkidura publikoak –jarduketa integratu baten eremuari atxikitakoak– alde zuzkide egikaritzeko.

d) Lursailak eta bestelako ondasunak eta eskubideak eskuratzeko, baldin eta natura, historia, zientzia, kultura, paisaia, arkeologia edo antzeko beste alde batetik duten balioegatik zaindu edo balioetsi behar badira, kasuan kasuko babes- eta zaintza-plan berezian ezarritakoaren arabera.

e) Hutsik dauden etxebizitzak eskuratzeko, baldin eta urte jarraitu batetik gora bizitegirako erabilerarik ez badute eta lehentasunez eta atzera eskuratzeko eskubideen menpeko eremuetan badaude, kokatuta dauden eremuaren egikaritzea errazteari begira.

f) Lursailak eta bestelako ondasunak eta eskubideak eskuratzeko, baldin eta lurzoru-ondare publikoak eratzeko edo handitzeko ezartzen diren erreserbetan badaude.

g) Lursailak eta bestelako ondasunak eta eskubideak eskuratzeko, baldin eta plangintzan babes publikoko araubide bati atxikitako etxebizitzak eta sustapeneko edo interes publikoko eraikuntza industrialak edo terzarioak egiteko izendatuta badaude.

h) Plangintza osorik edo zati batean egikaritzeko epeak, baita eraikitze eginbeharra ere, betetzen ez direnean.

i) Higiezinak kontserbatzeko eta haien mantentze-lanak egiteko legezko eginbeharrak betetzen ez direnean.

j) Erabilera nagusia bizitegirakoa duten eraikinetan, sektoreko legerian aurreikusitako irisgarritasuna hirigintza-antolamendua eskatu bezala bermatu ahal izateko beharrezko diren zerbitzuak eta instalazioak eguneratzeko eginbeharra betetzen ez denean. Kasu horretan, administrazio desjabetzailea udala izango da, eta onuraduna, berriz, jabeen elkarte edo kasuan kasuko obrak egikaritzeko gehiengo nahikoa duena. Onuradunak eskatu beharko du desjabetzea egiteko, bi gauza egiaztatuta: batetik, udalaren baimena duen edo izan dezakeen proiektu bat sustatzen duela, eta bestetik, ai-

*Artículo 177.*– Supuestos expropiatorios por motivos urbanísticos.

Será posible la aplicación de la expropiación por motivos urbanísticos en los supuestos siguientes:

a) La obtención de terrenos y demás bienes y derechos precisos para ejecutar la ordenación urbanística a través de actuaciones integradas de ejecución pública.

b) La obtención de terrenos y demás bienes y derechos precisos para el desarrollo de las actuaciones de ejecución de dotaciones públicas de la red de sistemas generales y locales, no incluidas ni adscritas a actuaciones integradas.

c) La obtención de terrenos y demás bienes y derechos precisos para la ejecución anticipada de las dotaciones públicas de la red de sistemas generales y locales adscritas al ámbito de una actuación integrada.

d) La adquisición de terrenos y demás bienes y derechos cuya preservación y puesta en valor se estime necesaria, por el valor de sus características naturales, históricas, científicas, culturales, paisajísticas, arqueológicas o de análoga naturaleza, de acuerdo con lo establecido en el correspondiente plan especial de protección y conservación.

e) La adquisición de viviendas desocupadas que permanezcan sin uso residencial por más de un año continuado y estén situadas en ámbitos sujetos al ejercicio de los derechos de tanteo y retracto, a los efectos de facilitar la ejecución del ámbito en el que radiquen.

f) La obtención de terrenos y demás bienes y derechos comprendidos en las reservas de suelo establecidas para la constitución o ampliación de los patrimonios públicos del suelo.

g) La obtención de terrenos y demás bienes y derechos destinados en el planeamiento a la construcción de viviendas sometidas a algún régimen de protección pública o edificaciones industriales o terciarias de fomento o de interés público.

h) El incumplimiento de los plazos fijados para la ejecución total o parcial del planeamiento, incluido el deber de edificar.

i) La inobservancia de los deberes de conservación y mantenimiento de los inmuebles legalmente exigibles.

j) La inobservancia del deber de actualizar, en las edificaciones de uso predominantemente residencial y en los términos requeridos por la ordenación urbanística, los servicios e instalaciones precisas para hacer efectiva la accesibilidad prevista por la legislación sectorial pertinente. En este último caso, la administración expropiante será el ayuntamiento correspondiente, y el beneficiario la comunidad de propietarios o quien ostente una mayoría suficiente para ejecutar las obras en cuestión. El beneficiario deberá solicitar la expropiación acreditando que promueve un proyecto que cuenta, o

patutako obrak ezin dituela hasi, obrok ukitutako ondasun eta eskubide guztiak baliatu ezin dituelako.

k) Legez aurreikusitako beste kasuetan.

**178. artikulua.**— Desjabetze-prozedura.

1.— Aurreko artikuluan jasotako nahitazko desjabetzeak arlo horretako legeriaren arabera izapidetuko dira. Hori hala izanik ere, lege honetan ezarritako zehaztapenak beteko dira eta Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen berezko antolamendu-egituran beharrezko egokitzapenak egingo dira.

2.— Aurreko paragrafokoa horrela bada ere, organo desjabetzailea udala edo foru-aldundia denean, udalaren edo aldundiaren —dagokionaren— erabakia baino ez da behar, desjabetze-legerian eskatutako ondasun eta eskubideak presaz okupatzeko deklarazioaren tramitea egiteko.

3.— Hirigintza-arrazoiak direla-eta egiten diren desjabetzeetan, administrazio jarduleak bi prozedura erabili ahal izango ditu: baterako tasazioa —hurrengo artikuluan dago araututa— edo banakako desjabetzea —nahitazko desjabetzeari buruzko legeriak arautzen du—.

**179. artikulua.**— Baterako tasazioaren prozedura.

1.— Desjabetze-proiektuak, baterako tasazioa egiten denean, honako agiriak jasoko ditu:

a) Lurralde-eremuaren zehaztapena, eta eremu hori kokapenari, azalerari eta mugei dagokienez zehazteko agiriak.

b) Lurzoruaren prezioak modu arrazoituan finkatzea, hain zuzen ere lurzoruaren hirigintza-kalifikazioaren, hirigintza-eraikigarritasunaren, eragin-balioaren eta hirigintza-mailaren arabera.

c) Finkei buruzko banakako balio justuko orriak. Lurzoruaren balioa ez ezik, eraikina, obrena, instalazioa eta landaketena ere jasoko da orriotan.

d) Beste kalte-ordain batzuei dagozkien balio justuko orriak.

2.— Desjabetze-proiektua, adierazitako agiri horiekin batera, hilabetean egongo da jendaurrean, interesdunek oharrak eta erreklamazioak egin ahal izan ditzaitez, batik bat eskubideen titulartasunari eta baloraziorari dagokienez.

3.— Proiektuaren berri emateko, iragarkiak argitaratuko dira kasuan kasuko lurralde historikoko aldizkari ofizialetan eta zabalkunde handiena duten egunkarietako batean.

4.— Tasazioak banan-banan jakinaraziko zaizkie espedientean ondasun-eskubideen titular gisa agertzen di-

es susceptible de contar, con licencia municipal y la imposibilidad de inicio de las obras por no disponer de la totalidad de los bienes y derechos afectados.

k) En los demás supuestos legalmente previstos.

**Artículo 178.**— Procedimiento expropiatorio.

1.— La expropiación forzosa, en los supuestos contemplados en el artículo anterior, se tramitará con arreglo a la legislación en materia de expropiación forzosa, sin perjuicio de las determinaciones de esta ley y de las necesarias adecuaciones a la estructura organizativa propia de las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.— No obstante lo dispuesto en el párrafo anterior, en el supuesto de que el órgano expropiante fuera el ayuntamiento o la diputación foral, el trámite de declaración de urgente ocupación de bienes y derechos exigido en la legislación expropiatoria sólo requerirá acuerdo municipal o foral, según corresponda.

3.— En cualquier expropiación por motivos urbanísticos, la administración actuante podrá aplicar el procedimiento de tasación conjunta regulado en el artículo siguiente o seguir la expropiación individualmente, conforme al procedimiento de la legislación de expropiación forzosa.

**Artículo 179.**— Procedimiento de tasación conjunta.

1.— El proyecto de expropiación, en los supuestos del procedimiento de tasación conjunta, contendrá los siguientes documentos:

a) Identificación del ámbito territorial, junto con los documentos que lo identifiquen en cuanto a situación, superficie y linderos.

b) Fijación razonada de precios acorde con la clasificación del suelo, según su calificación urbanística, edificabilidad urbanística, valor de repercusión y grado de urbanización.

c) Hojas de justiprecio individualizado de cada finca, en las que se contendrá no sólo el valor del suelo, sino también el correspondiente a las edificaciones, obras, instalaciones y plantaciones.

d) Hojas de justiprecio que correspondan a otras indemnizaciones.

2.— El proyecto de expropiación, con los documentos señalados, será expuesto al público por término de un mes, para que quienes puedan resultar interesados formulen las observaciones y reclamaciones que estimen convenientes, en particular en lo que concierne a titularidad o valoración de sus respectivos derechos.

3.— La información pública se efectuará mediante la inserción de anuncios en el boletín oficial y en el diario o diarios de mayor difusión del territorio histórico correspondiente.

4.— Asimismo, las tasaciones se notificarán individualmente a los que aparezcan como titulares de bie-

renei: batetik, hitzez hitzeko prezamendu-orria, eta bes-tetik, balorazio-irizpideak finkatzeko proposamena bidaliko zaizkie, alegazioak aurkez ditzaten jakinarazpenaren egunetik kontatzen hasita hilabeteko epean.

5.– Desjabetzailea udala ez bada, udalari entzungo zaio hilabeteko epean. Udal-administrazioari entzuteko epea eta interesdunei entzuteko epea aldi berean gerta daitezke, oso-osorik edo zati batean.

6.– Alegazioen gaineko txostena egin ondoren, organo eskudunak onartu beharko du proiektua.

7.– Espedientea onartzen duen ebazpena, inola ere, espedientean agertzen diren ondasun-eskubideen interesdun titularrei jakinaraziko zaie. Titularrok 20 eguneko epea izango dute espedientean ezarritako balorazioarekin ados dauden ala ez organo eskudunari idatziz adierazteko.

8.– Organo eskudunak, hala badagokio, desjabetzeak eragindako lurralde-eremuan eskuduna den nahitaez esjabetzeko lurralde epaimahaiari bidaliko dizkio espediente eta inpugnatutako prezamendu-orria, balio justua finka dezan. Legez ezarritako balorazio-irizpideak erabiliko dira balio justu hori finkatzeko.

9.– Aipaturiko 20 eguneko epe horretan interesdunak balorazioaren aurka azaltzen ez badira, desjabetze-proiektua onartzeko egintzan ezarritakoa ontzat ematen dutela ulertuko da, eta balio justua behin betikotzat eta interesdunak ontzat emantzat joko da.

**180. artikulua.**– Jabari eta erabilera edo zerbitzu publikoko ondasunak eta desjabetzeak.

1.– Desjabetu beharreko lurrazalean jabari publikoko ondasunak daudenean eta ondasun horien xedea, hirigintzako antolamenduaren arabera, erabilera orokorri edo zerbitzu publikoei atxikitzea eragin zuenaz bestekoa bada, kasuan kasuko ondasunari dagokion erregulazio-legeria erabili beharko da jabari-aldaketa edo desfektazioa –kasu bakoitzean egokia dena– gauzatzeko.

2.– Desjabetu beharreko lurrazalean dauden landa-bideak udal jabetzakotzat hartuko dira –kontrako frogarik ez bada behintzat–, abelbideak salbu, horiek berriazko araudia dute eta. Desagertzen diren herri barruko bideei dagokienez, organo desjabetzaileari zuzenbide osoz eskualdatzen zaizkiola ulertuko da, eta hirigintzako antolamendu berriak sorturiko bide berriek ordezkatzeko dituztela. Nolanahi ere, bete egin beharko da 146. artikuluan horren gainean ezarritakoa.

**181. artikulua.**– Zortasunak eratzea.

1.– Jabaria desjabetzea behar-beharrezkoa ez bada plan bat egikaritzeko, eta zuzenbide pribatuak edo administratiboak aurreikusitako zortasunen bat eratzea aski bada, zortasun hori ezarri ahal izango da, nahitaezko desjabetzeari buruzko legeriari jarraituta. Horretarako, ordea, ordaindu beharreko kalte-ordainak ez du

nes o derechos en el expediente, mediante traslado literal de la correspondiente hoja de aprecio y de la propuesta de fijación de los criterios de valoración, para que puedan formular alegaciones en el plazo de un mes, contando a partir de la fecha de notificación.

5.– Cuando el órgano expropiante no sea el ayuntamiento, se oír a éste por igual término de un mes. El periodo de audiencia a la administración municipal podrá coincidir en todo o en parte con el de los interesados.

6.– Informadas las alegaciones, se someterá el proyecto a la aprobación del órgano competente.

7.– La resolución aprobatoria del expediente se notificará a los interesados titulares de bienes y derechos que figuren en el mismo, confiriéndoles un término de veinte días durante el cual podrán manifestar por escrito, ante el órgano competente, su conformidad o disconformidad con la valoración establecida en el expediente aprobado.

8.– El órgano competente, en su caso, dará traslado del expediente y la hoja de aprecio impugnada al jurado territorial de expropiación forzosa que tenga competencia en el ámbito territorial a que se refiera la expropiación, a efectos de fijar el justiprecio, que, en todo caso, se hará de acuerdo con los criterios de valoración legalmente establecidos.

9.– Si los interesados no formularan oposición a la valoración en el citado plazo de veinte días, se entenderá aceptada la que se fijó en el acto aprobatorio del proyecto de expropiación, entendiéndose determinado el justiprecio con carácter definitivo y prestada su conformidad.

**Artículo 180.**– Bienes de dominio y uso o servicio público y expropiación.

1.– Cuando en la superficie objeto de expropiación existan bienes de dominio público cuyo destino, según la ordenación urbanística, sea distinto al que motivó su afección o adscripción al uso general o a los servicios públicos, se deberá seguir el procedimiento previsto en la legislación reguladora del bien correspondiente para la mutación demanial o desafectación, según proceda.

2.– Las vías rurales que se encuentren comprendidas en la superficie objeto de expropiación se entenderán de propiedad municipal, salvo prueba en contrario, a excepción de las vías pecuarias que se rigen por su normativa específica. En cuanto a las vías urbanas que desaparezcan, se entenderán transmitidas de pleno derecho al órgano expropiante y subrogadas por las nuevas que resulten de la ordenación urbanística, sin perjuicio de lo previsto al efecto en el artículo 146.

**Artículo 181.**– Constitución de servidumbres.

1.– Cuando para la ejecución de un plan no fuera precisa la expropiación del dominio y bastara la constitución de alguna servidumbre sobre el mismo, prevista por el derecho privado o administrativo, podrá imponerse con arreglo al procedimiento de la legislación sobre expropiación forzosa, siempre que la indemnización

gaudituko ondasuna erabat desjabetzeagatik ordaindu beharko litzatekeen zenbatekoaren erdia. Kopuru hori gauditzen badu, desjabetu egin beharko da ondasuna, haren jabea aurka ez badago.

2.- Zortasun pribatuak aldatu edo kendu egin behar badira hirigintzako antolamenduak ezarritakoaren aurka egoteagatik, indarrean dagoen legeria erabilia desjabetu ahal izango dira.

**182. artikulua.**– Desjabetu beharreko lursailetan eraikitzeke debekua.

Hirigintzako desjabetzea egin behar den lurrazalean ezingo da obrarik egin, ezta desjabetze-espeditentea hasi zenetik dagoenik aldatu ere, salbu eta erakunde desjabetzaileak ezohiko kasu jakin batzuetan alde zuzenetik baimena ematen badu. Erakunde baimen-emalea udala ez bada, baimenaren berri emango dio udalari, hark beharrezko lizentzia eman dezan.

**183. artikulua.**– Desjabetutako ondasunen eta eskubideen xedea.

1.– Hirigintza arrazoiak direla-eta desjabetzen diren lursailak eta edonolako ondasunak eta eskubideak, betiere, dagokien planean ezarritako berariazko helbururako erabiliko dira.

2.– Plangintzaren aldaketa edo berrikuspena dela-eta desjabetzea eragin zuen erabilera aldatzen bada, aplikatzekoa den desjabetze-legerian ezarritako kasuetan ez da ulertuko onura publikoko edo gizarte-intereseko deklarazioaren kausa aldatu denik. Kasu hauetarako, zuzkidura publikorako erabileratzen hartuko dira babes publikoko araubide bati atxikitako etxebizitzetarako edo sustapeneko edo interes publikoko jardura ekonomiko babestuetarako kalifikatutako lursailak, 16. artikulua xedatzen duen moduan.

**184. artikulua.**– Hirigintzako eginbeharrak eta betebeharrak ez betetzeagatik desjabetzeak.

1.– Bestelako lege-aurreikuspenik ez dagoenean, hirigintzako eginbeharrak eta betebeharrak ez betetzeagatik desjabetze-prozedura hasi baino lehen, zein egin-behar edo betebeharrak hautsi duen jakinaraziko die administrazio jarduleak jabeari eta, hala badagokio, sustatzaileari hilabeteko epean alegazioak aurkez ditzaten.

2.– Administrazioak, aurkeztutako alegazioak ikusita, epe bat emango du espeditentea eragin zuten akatsak baldintza batzuen arabera zuzentzeko. Epe hori hilabete batetik gorakoa eta hiru hilabete beherakoa izango da.

3.– Aurreko paragrafoan aditzera emandako epearen barruan zuzentzeko egin ez bada, bidezko desjabetze-espeditenteari ekingo zaio.

4.– Akatsak zuzentzeko baldintzak betetzen badira, zehapen-espeditentea irekiko da, desjabetzearen ordean.

que proceda abonar no exceda de la mitad del importe que correspondería satisfacer por la expropiación total del bien, en cuyo caso habrá de expropiarse, salvo oposición de su propietario.

2.– Cuando hubieran de modificarse o suprimirse servidumbres privadas por estar en contradicción con las determinaciones de la ordenación urbanística, podrán expropiarse con arreglo al procedimiento de la legislación vigente.

**Artículo 182.**– Prohibición de construir en terrenos a expropiar.

